

Txostena
Informe

Lanbide Heziketarako
Euskal Plana

Plan Vasco de Formación
Profesional

2004-2007



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





AURKIBIDEA/ÍNDICE

I. SARRERA	5
II. LANBIDE PRESTAKUNTZA	6
III. LANBIDE HEZIKETARAKO EUSKAL PLANA (2004-2007)	8
IV. ONDORIOAK	11
IV.1 Ondorio orokorra.....	11
IV.2 Bestelako ondorioak	11
IV.3 Ekonomia datuak.....	18
V. ATAL ARGIGARRIAK	19
V.1 Antolaketa egitura.....	19
V.2 Lanbide prestakuntza.....	19
V.3 Plana mamitzeko prozesua	22
V.4 Ekonomia datuak.....	23
V.5 Araudi ezargarria	24
V.6 Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza	25
V.7 Lanbide Heziketarako Euskal Kontseilua.....	27
V.8 Lanbide Heziketaren gaitasuna eta kalitatea neurtzeko Euskal Agentzia	30
V.9 Kualifikazio eta Lanbide Heziketako Euskal Institutua	37
V.10 Lanbide Heziketa eta etengabeko ikaskuntzarako berrikuntza zentroa (TKNIKA)	43
V.11 Lanbide Heziketako Zentroak.....	47
V.12 Etengabeko prestakuntza	53
I. INTRODUCCIÓN	57
II. LA FORMACIÓN PROFESIONAL.....	58
III. PLAN VASCO DE FORMACIÓN PROFESIONAL 2004-2007	60
IV. CONCLUSIONES.....	63
IV.1 Conclusión general.....	63
IV.2 Otras conclusiones.....	63
IV.3 Datos económicos	70



V. APARTADOS EXPLICATIVOS.....	71
V.1 Estructura organizativa	71
V.2 Formación profesional	71
V.3 Proceso de elaboración del plan.....	74
V.4 Datos económicos	75
V.5 Normativa aplicable	76
V.6 Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente.....	77
V.7 El Consejo Vasco de Formación Profesional.....	79
V.8 La Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la calidad de la Formación Profesional	82
V.9 Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional	90
V.10 Centro de innovación para la Formación Profesional y el aprendizaje permanente (TKNIKA)	96
V.11 Centros de Formación Profesional.....	101
V.12 Formación continua	106
ALEGAZIOAK	111
ALEGACIONES	119

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 22a

Vitoria-Gasteiz, 22 de diciembre de 2009



I. SARRERA

Lanbide Heziketarako 2004-2007 Euskal Planari buruzko txosten hau Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeari jarraiki mamitu da eta 2008ko ekitaldirako Lanerako Planean barne hartua dago, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta.

Lanbide Heziketarako 2004-2007 Euskal Plana (aurrerantzean, Plana) Lanbide Heziketarako Euskal Kontseiluak onetsi zuen 2004ko ekainaren 11n eta Eusko Jaurlaritzaren 2004ko azaroaren 9ko Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluaren erabaki bitartez. Aurrekariak 1997ko martxoaren 24an Lanbide Heziketarako Euskal Kontseiluak onetsitakoan ditu.

Plana jada abian diren egitura eta jarduerak aldaketa berrietara egokitzeko egiteko estrategiko modura ulertzen da, aurrez existitzen ziren planak eta prozesuak teknologia, merkatu, lehiakide eta baloreen eraldaketara doitu eta baliabide eta erreminta berrien bitartez gorabidean diren beste eremu batzuetara iristen saiatuz.

Lau eremu estrategikok osatzen dute, 44 helburu estrategikok eta ezarri beharreko 155 neurrik.

Hona hemen oinarri dituen gidalerro estrategikoak:

- 1. esparrua. Prestakuntza eta Lanbide Heziketako Sistema Bateratua gaurkotu eta hobetzea.
- 2. esparrua. Euskal Herriko Lanbide Heziketan kalitatea.
- 3. esparrua. Euskal Herriko Lanbide Heziketan berrikuntza etengabeko hobekuntza prozesu modura bultzatzea.
- 4. esparrua. Euskal Herriko Lanbide Heziketan informazio eta komunikazioaren teknologia berriak.

Lanaren mamia honako hau izan da:

- Planean onartutako helburu, neurri eta adierazleen azterketa eta horien betetze maila.
- Planaren helburuak eta neurriak betetzeko gauzatutako ekintzen analisia, horiek Planean ezarritakoari egokitzea eta kudeatzeko jarraitutako prozedura.
- Planean eduki ekonomikoa duten datuen analisia.
- Plana betearazteko gauzatutako jarduerak ezargarri zaion araudiari egokitzen zaizkiola aztertzea.



II. LANBIDE HEZIKETA

Lanbide Heziketa (aurrerantzean LH) Lanbide ezberdinak modu kualifikatuan betetzeko, enplegurako sarbidea izateko eta giza, kultur eta ekonomia bizitzan parte-hartze aktiboa izateko gaitzen duten heziketa ekintzen multzoa besarkatzen du. Hasierako lanbide heziketaren beraren irakaskuntzak barne hartzen ditu, langileen laneratze eta birlaneratze ekintzak eta enpresetan etengabeko prestakuntza jasotzera zuzendutakoak, lanbide gaitasunak etengabe jaso eta gaurkotzea bideratuko dutenak.

Gaur egun lanbide heziketa pertsonaren bizitza aktiboan zehar gauzatuko den prozesu modura ulertzen da eta horregatik egiten Heziketa Arautuaren – printzipioz eskolaratze adinean dagoen ikasleriari zuzendutakoak- eta Etengabeko Heziketaren arteko bereizketa, azken hau lanean ari diren langileei zuzendua.

Honela, bada, Heziketa Arautuari eta Etengabeko Heziketari koherentzia ematearren, Kualifikazioen Sistema ezarri zen, pertsonen lanbide bilakaera erakusten duena.

Hona hemen Araututako Lanbide Heziketak barne hartzen dituen ikasketak:

1. Oinarrizko heziketa: DBHn eta Batxilergoan jasotzen den lanbide izaerako heziketa da.
2. Prestakuntza ziklo sail batek osatzen duen berariazko heziketa, maila ertain edo goi mailakoa, iraupen aldakorrekoa eta lanbide eremu jakin bateko ezagutza teoriko-praktikoez osatua.

Etengabeko Lanbide Heziketa, berriz, enpresek, langileek edo euren erakundeek gauzatutako prestakuntza ekintzen multzoa da, gaitasunak eta kualifikazioak hobetzera ez ezik, lanean diharduten langileen birkualifikaziora ere zuzendutakoak, hartara, enpresen lehiakortasun handiagoak langileen sustapen sozial, profesional eta pertsonalarekin bat egiteko bide emango dutenak.

Kualifikazioen Sistemaren eta LHren arteko oinarrizko koherentzia printzipioari jarraiki, egiaztagarriak izango dira etengabeko prestakuntza ekintzen eta/edo enpresen jasotako lan esperientziaren bitartez eskuratutako lanbide gaitasunak, zeinak Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemak aurreikusitakoari egokitzen zaizkionak, eta hortik eratorrik da gainerako azpisistemetan horren gardentasun, aitortza eta baliokidetzatza.

1995eko irailean Euskal Autonomia Erkidegoan Etengabeko Heziketari buruzko Akordio Interprofesional eta Hirukoa izenpetu izanak Euskal Enpresarien Konfederazioa Confebask-en, ELA, CCOO, UGT eta LAB sindikatuen eta Eusko Jaurlaritzaren artean, Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa-HOBETUZ sortzea ekarri zuen. 1996ko uztailean errealitate bihurtu eta bezeroei zerbitzu emateko bokazio osoz jaio zen, demanda eta kalitatezko prestakuntzan laguntzeko izaera berebizikoarekin.

Amaitzeko, ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoari jarraiki, Kualifikazio eta Lanbide Prestakuntzari buruzkoan, era honetara definitzen dira:

Lanbide kualifikazioa: Enplegurako balioa duten lanbide gaitasunen multzoa, modulu bidezko heziketa edo bestelako heziketa bidez eta lan esperientzia bidez eskura daitezkeenak.



Gaitasun profesionala: Jarduera profesionala gauzatzea bideratuko duten ezagutza eta gaitasunen multzoa, ekoizpenaren eta enpleguaren eskakizunen arabera.

Euskal Herriko Kualifikazio Profesionalen sistemak enpresek zein motatako profesionalak behar diren identifikatzen duen, profesionaltasun hori nola lortu erakusten duen eta hartutako profesionaltasuna egiaztatu eta erregistratzen duen baliabidea da.

Hona hemen sistemaren helburuak:

3. Lanbide Heziketaren sistemari koherentzia ematea.
4. Pertsonen prestakuntza eragin eta hobetzea.
5. Pertsonen bilakaera profesionala bideratzea.
6. Lanbide Heziketaren kalitatea hobetzea.
7. Enpresen beharrianak langileen gaitasunarekin lotzea.



III. LANBIDE HEZIKETARAKO EUSKAL PLANA (2004-2007)

Hona hemen oinarri dituen gidalerro estrategikoak:

1. Esparrua. Kualifikazio eta Lanbide Heziketako Sistema Bateratua gaurkotu eta hobetzea.

- LHrekin lotutako erakundeak indartzea.
- Euskal Herriko Kualifikazio eta Lanbide Heziketaren Sistema Bateratuan aurrera egitea.
- LHko ikastetxe integratuak garatzea.
- Ikaskuntza ez formalak eta informalak aitortu eta ebaluatzea.

Esparru honen gidalerro estrategikoak gauzatu ahal izateko hamabi helburu estrategiko ezarri ziren eta horietan, berebat, bakoitzarentzako hainbat helburu berariazko bereizi ziren.

2. esparrua. Euskal Herriko Lanbide Heziketan kalitatea.

- Ikastetxeen kudeaketaren kalitatean aurrera egitea.
- Irakasleen prestakuntzaren kalitatea lantzea.
- Giza baliabideen kudeaketa eta zuzendaritza hobetzea.
- Egitasmo taldeak sustatu eta kudeatzea.
- Kalitatearen beste esparru batzuetan lan egitea:
 - Investor in people
 - Gizarte Erantzukizun Korporatiboa.

Esparru honen gidalerro estrategikoak gauzatu ahal izateko zortzi helburu estrategiko ezarri ziren eta horietan, berebat, bakoitzarentzako hainbat helburu berariazko bereizi ziren.

3. esparrua. Euskal Herriko Lanbide Heziketan berrikuntza etengabeko hobekuntza prozesu modura bultzatzea.

- LHn ikerketa, garapen eta berrikuntza zentroa sortzea.
- LHko ikastetxe integratuen kudeaketan berrikuntzak egitea.
- Prestakuntzari ezarritako teknologietan berrikuntzak egitea.
- Irakaskuntza / ikaskuntza prozesu berriak garatzea.
- LH eta enpresen arteko teknologia eta ezagutzen transferentzian aurrera egitea.
- LHko ikastetxeen sarean ezagutza kudeatzeko sistema ezartzea.
- Goi mailako LHren eta Unibertsitatearen arteko bat egitean aurrera jotzea.
- Zientzia, teknologia eta berrikuntza sarean LHko ikastetxe integratuen egiaztatze progresiboa lortzea.
- LHko esparruan erabilgarri izan daitezkeen ikerketa proiektuak garatzea.



Esparru honen gidalerro estrategikoak gauzatu ahal izateko hamabi helburu estrategiko ezarri ziren eta horietan, berebat, bakoitzarentzako hainbat helburu berariazko bereizi ziren.

4. esparrua. Euskal Herriko Lanbide Heziketan informazio eta komunikazioaren teknologia berriak (NTIC's).

- LHko ikastetxeen sare korporatiboan aurrera egitea.
- Ikasgela digital interaktiboaren kopurua areagotzea.
- Ikastetxe eta ikasgela digitalen arteko lankidetzaren eta lana sustatzea.
- Software librea aplikatzea.
- Hiru dimentsioko LH birtuala garatzea.

Esparru honen gidalerro estrategikoak gauzatu ahal izateko hamabi helburu estrategiko ezarri ziren eta horietan, berebat, bakoitzarentzako hainbat helburu berariazko bereizi ziren.

Urriaren 16ko 222/2001 Dekretuaren bitartez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezartzen duena (aurrerantzean Saila), Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza berria sortu zen; honek egiaztatu egiten du LHk betetzen duen egiteko estrategikoa pertsonen prestakuntza eta kalitatean, enpresen lehia hobetzean, kualifikazio profesionalak inguru produktiboaren beharrei egokitzean eta enplegu politikak lanbideratze baliabide gisa erabiltzean.

Aipatutako dekretuak Lanbide Heziketako Sailburuordetzari egozten dizkion egitekoen artean honako hauek aipa ditzakegu:

- a) Lanbide Heziketako Euskal Plana garatu, ezarri eta gaurkotzea, beharrezko diren neurriak hartuta.
- b) Ezagutzaren gizarte berrira eramango gaituen eta honek eskaintzen dituen aukerak baliatuko dituen ereduak ezartzeko beharrezko diren etengabeko ikaskuntzaren ekintzak diseinatu, zehaztu eta aplikatzea.
- c) Bizitza osoan zehar kualifikazioak geureganatzea edo areagotzea ekarriko duten LH eta etengabeko ikaskuntzako politikak definitzea.
- d) Berariazko LH programatu eta inplementatzea, hori irakasten duten ikastetxeetan.
- e) LH ebaluatzea, kontrolatu eta kalitatea bermatuko duten neurriak hartu ahal izateko.
- f) Lanbide heziketa berariazkoaren antolamendu, erreforma eta berrikuntzari buruzko jarduerak planifikatzea.
- g) Berariazko lanbide heziketan giza eta gauzazko baliabideen beharrianak aztertu eta planifikatzea; baita, irakasleria hobetu eta kualifikatzeko planak ere.

Halaber, eta Plan honen garapenari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Sailburuordetza eta Lanbide Prestakuntzarako Zuzendaritzaz gain, erakunde multzo bat eratu da, horietako batzuk Plan hori onetsi aurretik sortutakoak.

Horien artean azpimarragarriak dira honako hauek, hurrenkera kronologikoan zerrendatuak:



- 1994an sortutako Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua (aurrerantzean LHEK).
- 1998an sortutako Koalifikazio Profesionalen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua (aurrerantzean KEI).
- 2000ko urtean sortutako Lanbide Heziketan Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentzia (aurrerantzean Agentzia).
- 2005ean sortutako Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa (aurrerantzean TNIKA).

1998ko urtean Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuen Sarea sortu zen 223/2004 Dekretu bitartez, eta bertan Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide heziketako ikastetxe integratuek jaso behar dituzten egiteko eta betekizunak finkatu ziren.

Esparru estrategiko eta urteen arabera onetsitako aurrekontua honakoa izan zen:

	2004	2005	2006	2007	Mila euro Guztira
1. esparru estrategikoa					
Koalifikazio eta Lanbide Heziketako Sistema Integratua					
Osatu, gaurkotu eta hobetzea	88.686	101.113	106.138	111.445	407.382
2. esparru estrategikoa					
Euskal Herriko Lanbide Heziketan kalitatea	27.183	31.892	33.487	35.162	127.724
3. esparru estrategikoa					
Euskal Herriko Lanbide Heziketan berrikuntza sustatzea, etengabeko hobekuntza prozesu modura	27.183	32.742	34.380	36.099	130.404
4. esparru estrategikoa					
Euskal Herriko Lanbide Heziketan teknologia berriak.....	28.579	35.743	37.530	39.406	141.258
GUZTIRA	171.631	201.490	211.535	222.112	806.768



IV. ONDORIOAK

IV.1 ONDORIO OROKORRA

1. Planean zehaztu diren helburuen izaera orokorrak eta bertan jasotako 155 neurriekin eskuratu asmo diren emaitzen zehaztasun ezak zaildu egiten dute horren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
2. Ez du adierazle kuantitatibo ez kualitatiborik, ez eta egitekoak gauzatzeko eperik ezartzen eta ez du jarraipen iraunkorreko, ebaluaketa eta indarraldian zehar egokitzeko metodorik erakusten. Onartu zenean administrazioaren jarduera baloratzeko baliabideak ezarri behar ziratekeen, objektibotasuna, zehaztutako jomugen egokiera eta diagnosi-gaitasuna izango dutenak.
3. Onartutako aurrekontua, Planarekin batera aurkeztutako 806.768 mila euroko guztizkoa egiten zuena, esparru estrategiko bakoitzean aurreikusitako helburu guztien balorazio globala eginez mamitu zen. Berebat, Planaren atal ez diren gastu jakin batzuk barne hartzen ditu, 637.480 mila eurokoak, eta honenbestez, ez du Planari atxikitako gutuen aurreikuspena islatzen (ikus V.4 atala). Aipatutako aurrekontua ez da modu berezian ageri Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan Planaren iraunaldian besarkatzen dituen ekitaldiei dagokienez.
4. Erakundeen sarea osatzen duten erakundeen finantza egoerek –baita LHko ikastetxeen ere-, ez dituzte Planari ezargarriak zaizkion gastuak identifikatu eta ez daude Plan horrez besteko diren berezko jardueraren garapenerako beharrezko diren gastu arruntetatik bereziak.
5. Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzak ez du Planaren gaineko balio-neurketarik egin eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia hitzetan. Nolanahi dela ere, agiria eskuratu digu non aztergai izan dugun aldiaren gauzatutako jarduerak Planean jasotako helburuei egokitzen saiatu den.

Aurreko ataletan adierazitako mugaketen ondorioz, ezinezkoa da Planaren helburuak lortzeko izan den eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia balio neurtzea. Berebat, ezinezkoa da Planaren exekuzioan gauzatutako gastu guztiak zehaztea.

IV.2 BESTELAKO ONDORIOAK

Azterlanean honako alderdi hauek azaleratu dira:

1. 1. Aurreikuspenak egiaz eta modu eraginkorrean garatzeko, Planak jada existitzen diren erakundeez osatutako gailu baten partaidetza du, jada existitzen diren erakundeez eta berri batez osatua (TKNIKA). Ordea, finkatutako neurriak gauzatzeko koordinazio eza egon dela erakunde ezberdinen artean azaleratu da eta baita konexio eza ere Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluarekin; izan ere, honek behar zukeen izan Planaren lidergoa hartuko zuen erakundea eta horren gaineko kontrola eta jarraipena egingo zukeena, aurreikusia zegoen legez.
2. Planak egotzi zaizkion helburuak lortzeko beharrezko baliabide tekniko eta gizazkoak sendotzera zuzendutako neurri jakin batzuk aurreikusten ditu, baina horien zenbatekoa



eta kostua jakinarazi gabe eta eraginpeko erakundeen azken egituraren berri izan gabe. Erakunde berriaren sorrera dela eta (TNIKA), Plana horren helburu edo egitekoak zein izango diren zehaztera mugatzen da eta ez du horren izaera juridikoa adierazten. Erakunde hauek gauzatu beharreko ekintzei buruzko adierazlerik ez dagoenez gero, ezin ondoriozta dezakegu giza eta gauzazko baliabideen zuzkidura helburuak lortzeko behar hainbatekoak eta egokiak izan diren.

3. Planaren kostuen balioespena modu globalean egiten da eta ez du bereizketarik egiten ekintza arrunt izaera izan dezaketen jardueren eta berariazko izaera izan dezaketen haien artean; lehenengo horientzat aurrekontuak dagozkion zuzkidurak jasotzen ditu eta bigarrenek, berriz, kostu gehigarria eragiten dute. Berebat, ez dira kredituak barne hartzen dituzten programa eta kontu-sailak identifikatzen, gastua finantzatzeko aurrekontuko euskarri dena.
4. Funtzionamendu gastu, inbertsio eta sarrerren magnitude ezberdinek izan duten eboluzioaren analisisian zera ikusi da:
 - Planaren indarraldian zehar LHko Zentroek gauzatutako funtzionamendu gastuak, zuzenean Planari egotz dakizkikeenak gastu arruntetatik bereizi ezin direla, mantendu egin dira epe horretan zehar hiru lurraldeetan eta soilik Gipuzkoako Lurralde Historikoan sumatu da gastu horien igoaldia Planari ekin aurre-aurreko ekitaldian egin ziren gastuekiko.
 - Planaren indarraldian zehar LHko ikastetxeek egindako inbertsioek behera egin dute Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan Planari ekin aurre-aurreko ekitaldian egin ziren inbertsioekiko. Arabako Lurralde Historikoan inbertsioek eragindako gastuek bilakaera ez homogeneoa erakusten dute aztergai izan den aldian, baina betiere, 2003ko ekitaldian egindako inbertsio-gastuaren azpitik. Osotasunean, inbertsioek eragindako gastuak % 36,39koak izan dira Planaren indarraldiak iraun duen aldian funtzionamendu gastuei dagokienez.
 - Ikastetxeek jasotzen dituzten sarrerren osaerari dagokionez, hiru mota bereiz ditzakegu kontzeptu handien mailan: aldi ezberdinetan sortutako geldikinetatik datozenak; gastu arrunt eta ekipamenduak finantzatzeko Sailetik jasotakoak; eta beste erakunde batzuetatik jasotzen dituztenak eta zerbitzuak emateagatik eskuratutakoak. Aztertutako aldian hona hemen sarrera horiek izan duten bilakaera: geldikinen bariozioak ez du joera homogeneoa, ematen zaion erabilera eta konpromisoaren arabera baita. Sailetik eratorritako sarrerak areagotu egin dira Planaren indarraldian zehar; baita, aurre-aurreko ekitaldiari dagokionez ere. Gainerako sarrerak behera egin dute, bai Planean zehar, bai aurre-aurreko ekitaldiari dagokionez ere.
 - Guztizkoaren gainean berariazko pisu handiagoa duten sarrerak Sailetik datozen haiei dagozkie, % 48,98 egin dutenak; beste erakunde batzuetatik eta emandako zerbitzuetatik datozen haiek % 24,27 egin dute eta geldikinek, berriz, % 26,75.
8. Berebat, aipatutako sarrerren gainean Hezkuntza Sailak jardueretarako eta ekipamendu eta obretarako emandako diru-laguntzak barne hartu dira. Emandako diru-laguntzen bolumenak antzeko kopuruetan eutsi dio aztertutako aldian zehar.



Aurreko idatz-zatietan adierazitakoaren arabera, Planak ez duela Lanbide Heziketako Zentroen funtzionamenduan eragin nabarmenik izan ikusi dugu.

5. 2004tik 2007ra bitarteko ekitaldietan Sailak laguntzak eman dizkie sareko Ikastetxe ezberdinei Planaren barruan egindako jardueren atal modura. Laguntza hauek Hezkuntza Sailburuaren agindu bidez arautzen dira eta Ikastetxeetan jarduerak garatu eta ekipamendu eta lanetarako erabili ohi dira; halaber, aurreko ekitaldietan ere eman ohi ziren. Egindako azterketan zera azaleratu dugu:
 - Nahiz aginduek Planarekiko lotura erakusten duten, Sailak eta/edo LHko Zuzendaritzak ez du laguntza hauek Planaren helburuekin lotuko dituen ebaluazio, azterketa eta/edo analisirik egiten; salbuespen da, orokorrean, hainbat proiekturi ematen zaizkien laguntzen bitartez LHren hobekuntza modura ezartzen den lotura, hala nola, berrikuntza, irakaskuntza eta ikaskuntza, berrikuntza teknologikoko proiektuei, kudeaketa integraleko ereduertarako proiektuei, kalitate programa eta etengabeko hobekuntzari, e.a. ematen zaizkienak.
 - Agindu guztiek laguntza hauek beste laguntza batzuekiko bateragarri izatea bideratzen dute, betiere hortik ez bada gain-finantzaketarik eratoritzen. Sailak ez du egitate hau egiaztatu aztertutako urte guztietatik batean ere eta onuradunari ere ez zaio zinpeko aitopenei eskatu, helburu bereko beste laguntzarik jasotzen ari denari buruzkorik.
 - Ez da diru-laguntzen programaren baloraziorik egin, 1/1997 legeaz Dekretuaren 49.8 eta 9 artikuluan agintzen den legez; hartara, eskuratutako emaitzak, programaren erabilera eta inpaktu soziala eta laguntzei bere horretan eusteko azterlana aztertzearen.
 - Proiektuei emandako laguntzei dagokienez aztertutako aginduetako batean, deialdiak ez du zehazten zein diren baloratu beharreko irizpideak, ez eta balorazioen irizpide logikoa ere, batzordearen aukerara uzten dela (TKNIKAK egindako balorazioak txertatzen dituen). Halaber, Balioeste-Batzordeak ikastetxe eta espezialitate bakoitzeko proiektu bat baino gehiago ez onartzea erabakitzen du, deialdian aukera hori finkatu gabe. Amaitzeko, agindu horien ebazpenetan ez dira atzera botatako eskabideak, ez ukatzeko arrazoiak zerrendatzen eta honek Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Bateratuaren Legearen (AJAPBL) 54.2 artikulua urratzen du berriz ere.
 - Aztertu dugun beste agindu batean, diruz lagungarri den alor bakoitzaren analisia eta ebaluazioa modu askean egitea aurreikusten duena, aukerakotasunak lekuri ez izateko moduan ezarri eta garatzen dituelarik irizpideak, Balioeste-Batzordeak ez du arrazoitzen 2. alorreko irizpide bakoitza aplikatzean emandako puntuaketa; ordea, puntuaketa baliogabea izan den suposamenduak soilik arrazoitzen ditu eta honek 30/1992 AJAPBLren 54.2 artikulua urratzen du.
6. Ikastetxeek inbertsio eta egitasmoak finantzatzeko Lanbide Heziketako Zuzendaritzatik diru-fondoan ordainketa-aginduak jasotzen dituzte. Ordaindu beharreko kopuruak zehaztutako irizpide jakin batzuen arabera egiten da eta Ikastetxeek aurkeztutako egitasmoen arabera. Egindako azterketan zera azaleratu dugu:



- Ordainketak zehazteko finkatutako irizpideek ez dute agiri bidezko euskarririk ez kontzeptuari dagokionez (zergatik erabiltzen diren kontzeptu horiek eta ez beste batzuk), ez irizpide bakoitzari ezarri beharreko zenbatekoa finkatzeko moduari dagokionez ere.
 - Sailak ez ditu ikastetxeek igortzen dituzten datuak egiaztatzen, irizpideak ezartzeko ezinbesteko direnak. Proiektuei dagokienez, Sailean ez dizkigute ikastetxeek proiektu bakoitzerako igorritako eskabideak eskuratu eta honenbestez, ezin egiaztatu izan dugu emandako zenbatekoa eta egitasmoa aurkeztutako eskabidearekin bat datozela. Berebat, ez digute agiri bidez justifikatu kontzeptu honen izenean emandako zenbatekoak nola zehaztu dituzten.
 - Sailak ez du egiaztatzen Ikastetxeetako gastuen justifikazioa diru-funtsak jaso dituzten proiektuei dagokien. Izan ere, Saileko Administrazio eta Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza da egindako gastuak egoki euskarrituak daudela kontrolatzen duena, baina ez du egiaztatzen gastu hori aurkeztutako egitasmoei dagokien.
 - Lanbide Heziketako Zuzendaritzak 2005 eta 2006ko ekitaldietan, hurrenez hurren, 3.194 eta 2.413 mila euroko ordainketak onetsi ditu, baina ez zaigu aipatutako kopuruak zehazten dituen ez ebazpena, ez dokumentazio euskarria eskuratu.
7. Lanbide Heziketako Ikastetxeek eta Sailak gastuak kontratatu eta gauzatzera, honako akats hauek ikusi ditugu:
- Aztergai izan dugun aldian, Ikastetxeek zatikatu egin dituzte 1.356 mila euroko gastuak eta ez dute dagokion kontratazio espedientea izapidetu.
 - Honela, bada, gauzatutako gastuei dagokien 431 mila euroko zenbateko batek zehaztutako mugak gainditu dituen arren, ez da dagokion kontratazio espedientea izapidetu.
 - Ikastetxeek 179 mila euroko zenbatekoa kontratatu dute hornitzaile homologatuekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazioari buruzko 136/1996 Dekretuaren 13. artikuluan finkatutako prozedura gauzatu gabe.
 - Aztertu ditugun kontratazio espediente guztietan premiazko izapidea erabili da, horren erabilera egoki arrazoitu gabe.
8. Hona hemen Planean esku hartzen duten erakunde sarea osatzen duten erakunde ezberdinetan egindako lanetik ondorioztatu ditugun egoerak:



KEI-KOALIFIKAZIOEN EUSKAL INSTITUTUA:

- Aztertutako aldian zehar guztira 217 mila euroko zenbateko gastuak zatikatu dira.

Agentziak:

- Aztertutako aldian zehar guztira 128 mila euroko zenbateko gastuak zatikatu dira.
- Sailak izapidetutako kontratazio espedienteetako batean, 546 mila euroko esleipen-zenbatekoa duena, 131 mila euroko aldaketa onartu da horren beharrianak behar hainbat justifikatu gabe, ez zerbitzu berriei dagokienez edukia azaldu ez baloratu ez dela, ezta dagokion zenbatespen ekonomikoa egin ere.

TKNIKA:

- 2005, 2006 eta 2007ko ekitaldietan, hurrenez hurren 128, 111 eta 204 mila euroko gastu-zatikapenak egin dira.
 - Prozedura negoziatu bitartez, prozedura hori erabiltzea bideratzen duten zenbatekoak ezarrita, 182 mila euroko zenbatekoa egiten duten gastuak zatikatu dira.
 - Aztertu dugun espedienteetarik batean, 1.555 mila euroko esleipen zenbatekoa izan zuena, prozedura negoziatua erabili da kontratazio arautegian aurreikusi gabeko suposamendu batean, hornidura kontratuetan prozedura hau erabiltzeko ezarritako zenbatekoak gainditu izanaren ondorioz (237 mila euro). Ezarritako irizpideei dagokienez, ez direla pleguan jasotako arauak jarraitu iritzi diogu, horren ondorioz, azpimultzoko bakoitza proposamenik abantailatsuena egin duen lehiatzailearen alde esleitu behar baitzatekeen.
 - 179 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako espediente batean, Agindu Teknikoen Pleguak barne hartzen dituen hainbat alderdi Administrazio Klausula Partikularren Pleguan hartu behar ziratekeen aintzat eta esleipen hartzaile den enpresak ez du behar hainbat egiaztatu administrazioarekin kontratatuzeko gaitasuna.
 - Aztertu ditugun kontratazio espediente guztietan premiazko izapidea erabili da, izapide horren erabilera egoki arrazoitu gabe.
9. Etengabeko Prestakuntzari emandako laguntzak egiaztatuzko lanean, honako egoera hauek azaleratu zaizkigu:
- 2004, 2006 eta 2007ko langileen deialdia arautzen duten aginduetan eskabideak aurkezteko ematen den epea 1/1997 Legegintzazko Dekretuak finkatzen duen hilabetekoa baino txikiagoa da.

HOBETUZek erakunde laguntzaile den aldetik kudeatutako laguntzei dagokienez:

- 2004, 2005 eta 2007ko ekitaldietarako barne irizpideak ezarri dira enpresaren asmoak teknikoki baloratzeko, ekintza estrategikoen garapenerako laguntzei buruzkoak, EHAOn argitara emandako laguntzen agindu arautzailean islatu ez direnak. 2007an aginduak ez du plan estrategikoaren irizpena definitzen eta ez ditu erabilitako balorazio irizpideak arautzen. Horiek direnez gero laguntzaren zenbatekoa zehazteko oinarria, ezargarri den araudiak jaso behar dituela uste dugu.



- Aztertu ditugun bi espedientetan, kanpoko prestakuntza kontzeptuan, justifikazio modura onartu dira taldeko beste enpresa batzuek fakturatutako gastuak; horiek, ordea, barne prestakuntza modura hartu behar ziratekeen, tarifa ekonomikoa merkeagoa baita.
- Hiru laguntza moten aginduek laguntzaren zenbatekoa zehazteko modulu eta tarifa ekonomikoak arautzen dituzte. Ez zaigu organo eskudunak horren onespina ematea, denboraren bilakaeran zuzentasuna eta zenbatekoa egokia dela euskarrituko duen inongo azterlanik eskuratu.
- Berebat, ez zaizkigu eskuratu emandako laguntzak zehazteko erabilitako balorazio teknikoak, ez 2004 eta 2005eko ekitaldietarako ukatu diren eskabideen zerrenda ere. Berebat, ez dira EHAOn argitaratu ekitaldi hauei dagozkien emakida ebazpenak.

10.Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzaren aldetik 2006an emandako laguntzak kudeatzerakoan, honako gorabehera hauek azaleratu zaizkigu:

Enpresa edo enpresa taldeek garatu beharreko ekintza estrategikoetarako laguntzen emakdia:

- Aztertutako onuradunetako batek ez ditu Aginduaren 4. artikuluko betekizunak betetzen, ezin baita enpresa multzotzat hartu.
- Ez dakigu zein diren emandako kopurua osatzen duten prestakuntza jarduerak, ez eta horietatik onartutako diruz lagungarri den kostua, ez baitaigu eskuratu enpresa planen ekintza osagarri bakoitzarentzat eskatutako zenbatekoaren eta azkenean diruz lagundutakoaren arteko aldea azalduko duen xehetasunik.

Laguntzen justifikazio eta azken likidazioari dagokionez:

- Orokorrean, enpresek garatu beharreko ekintza estrategikoei buruzko laguntzak, 2006an emandakoak, oroitidazki justifikagarria aurkeztu ondoren sei eta hemeretzi hilabete beranduago kitatu dira. Halaber, ez da behar hainbateko dokumentazio justifikagarria eskatu elkartearen finantzaketa eskuratzeko onuradunak nahitaez egin behar duen inbertsio-ahalegina egiaztatzeko.
- Aztertu ditugun espedienteetatik batean, diruz lagungarri ez diren 6 mila euroko kostuak edo 3 mila euroan behar hainbat justifikatu gabekoak onartu dira. Gainera, kanpoko prestakuntzat hartu dira taldeko beste enpresa batzuek fakturatutako 9 mila euroko gastuak; horiek, ordea, barne prestakuntza modura hartu behar ziratekeen, tarifa ekonomikoa merkeagoa baita.
- 2006ko azaroaren 7ko Aginduaren 4. artikulua ezartzen du ez direla finantzatuko aztertu eta baloratu ondoren gehienezko 100 puntuko baloraketaren gainean 50 puntuko gutxieneko puntuaketa eskuratzen ez duten haiek. Aztertu ditugun 10 espedienteetatik 7tan, eskabideari dagokionez gutxieneko puntuazioa eskuratu da, baina ez likidazioan; ordea, Sailak emandako diru-laguntzaren % 100 ordaindu du, dagokion diru-itzulketa egiteko eskatu gabe. Antolaraei buruzko Legeak agintzen du diru-laguntzak jasotzen dituztenen obligazioa dela laguntzaren helburua bete izana justifikatzea eta honenbestez, sendotasun, koherentzia eta erabilgarritasunari dagokionez behar hainbateko balorazio teknikoa eskuratu ez duen azterlana aurkeztea



justifikazio eza dela ulertu behar da eta horrek emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea erabat edo zati batean galtzea ekarriko du.

- Aurkeztutako azterketa diagnostikoak bete direlako azken egiaztaketarako erabilitako irizpideak izugarri orokorrak dira eta ez dute emandako puntuaketaren zuzentasuna egiaztatzen uzten. Berebat, ez da inbertsio berriak egin edo erreminta edo prozesu berriak ezarri izana, e.a. egiaztatzea bideratuko duen dokumentazio euskarria aurkezteko eskatu.



IV.3 EKONOMIA DATUAK

Ondotik erakutsiko ditugun datu ekonomikoak LHko zuzendaritzak dituen erregistro osagarrietatik eta hainbat erakunderen kontularitzako euskarrietatik eskuratu ditugu.

Erakundeek eta lanbide heziketako ikastetxeek aztergai izan dugun aldian egin dituzten gastuak, honako hauek izan dira:

	2004	2005	2006	2007	Mila euro Guztira
Funtzionamendu gastuak					
Lanbide Heziketarako Euskal Kontseilua.....	82	6	2	4	94
Lanbide Heziketako Euskal Institutua.....	151	75	66	136	428
Gaitasuna Ebaluatzeako Euskal Agentzia	186	138	146	189	659
TKNIKA.....	-	374	939	834	2.147
Lanbide Heziketako Ikastetxeak.....	18.840	17.928	17.842	18.840	73.450
Inbertsioetan gastuak					
Lanbide Heziketarako Euskal Kontseilua.....	-	-	-	-	-
Lanbide Heziketako Euskal Institutua.....	-	9	-	-	9
Gaitasuna Ebaluatzeako Euskal Agentzia	-	3	10	-	13
TKNIKA.....	-	235	445	583	1.263
Lanbide Heziketako Ikastetxeak.....	8.658	6.298	6.016	6.292	27.264
Egintzak					
Eredu berria zabaltzea.....	209	-	-	-	209
Laneko gaitasun ebaluatzea	12	1	12	74	99
EFQMko oroitdatziak mamitzeako prestakuntza.....	-	87	-	-	87
Kualifikazio sistemen hedapena	-	-	260	30	290
Diseinua, prestak., EFQM ebaluazio erremintak.....	-	-	12	69	81
Kalitatea aitortzea.....	-	-	-	13	13
Investor in People aholkularitza	-	-	-	11	11
Gaitasunaren erremintan aholkulariak eta ebalutzaileak prestatzea	14	-	-	-	14
Erreferente okupazionalak mamitzea eta Moduluen araberako Katalogoa egitea	79	-	-	-	79
Moduluen araberako katalogoa mamitu eta itzultzea....	-	105	88	-	193
Lanbide Kualifikazioak mamitu eta itzultzea	-	-	7	-	7
lanbide familien azterketa sektoriala	-	-	-	66	66
GUZTIRA	28.231	25.259	25.845	27.141	106.476

Guztira egindako gastuak aurrekontu egindako guztizkoarekin alderatuz gero, behin V.4 atalean adierazitako kontzeptuak murriztu ditugula, exekuzioak % 62,90 egiten du eta ezin zehatz dezakegu zein kontzeptu edo jardueratan sortu diren desbideraketak, onetsitako aurrekontuaren zehaztasun ezaren ondorioz.



V. ATAL ARGIGARRIAK

V.1 ANTOLAKETA EGITURA

Planak erakunde mailako sarea ezarri du, Lanbide Heziketaren presentzia indartzen lagundu duena; honako hauek dago osatua:

- Lanbide Heziketa eta Etengabeko Irakaskuntzako Sailburuordetza, 222/2001 Dekretuaren babesean sortua; horren arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezartzen da eta Lanbide Heziketak betetzen duen egiteko estrategikoa baitesten du, bai pertsonen prestakuntza eta kalitatean, enpresen lehiakortasunaren hobekuntzan, lanbide kualifikazioak inguru produktibora egokitzean, eta baita enplegu politiketan ere, lanbideratzeko tresna diren aldetik.
- Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua Erakundearteko organoa da, 1994an 100/1994 Dekretu bitartez sortua; erregulatutako eta erregulatu gabeko lanbide heziketa arloan erakundeek eta indar sozialek parte hartzeko organoa izango da. 222/1998 Dekretu bidez aldatu zen kontseilarien eta Kontseilukoak diren ordezkarien osaera, izendapena eta iraupena zehazteko. Kontseiluaren helburua ekintza ezberdinak koordinatzea da, erakunde ezberdinak elkar gainezarri ez daitezen eta bestetik, eskuragarri dauden baliabideak optimiza daitezen. Lanbide heziketan inplikaturik dagoen sare sozial osoa besarkatzea du helburu.
- Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua 119/1998 Dekretu bitartez koalifikazioen egitura zehaztu eta Lanbide Koalifikazioen sistema ezartzeko ardura duen organo modura sortu da. Organikoki eta funtzionalki Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saileko Lanbide Heziketako Zuzendaritzaren meneko da.
- Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuen Sarea. Heziketarako erakundearen eskaintzaren iragazkortasuna bideratzen du, langileen koalifikazio ahaleginak ahalik eta gehien bultzatuz eta lanbide heziketako sistema integratuaren funtzionamendu egokia bermatuz. Ikastetxe sarearen egitekoa Lanbide Kualifikazioen sistemari egokitutako prestakuntza eskaintzea izango da, prestakuntza zikloak ez ezik, kualifikazioei lotutako prestakuntza eta oinarritzko prestakuntza emanez.
- Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia. 62/2001 Dekretu bidez sortua, Lanbide Heziketako Sistema ebaluatzeko ardura duen organoa da. Agentzia organikoki Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saileko Lanbide Heziketako Zuzendaritzari dago atxikia eta funtzionalki, egitekoak garatzeko, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren baitako da.

V.2 LANBIDE HEZIKETA

Lanbide Heziketak (aurrerantzean LH), lanbide ezberdinak modu kualifikatuan betetzeko, enplegurako sarbidea izateko eta giza, kultur eta ekonomia bizitzan parte-hartze aktiboa izateko gaitzen duten heziketa ekintzen multzoa besarkatzen du. Hasierako lanbide heziketaren beraren irakaskuntzak barne hartzen ditu, langileen laneratze eta birlaneratze ekintzak eta enpresetan etengabeko prestakuntza jasotzera zuzendutakoak, lanbide gaitasunak etengabe jaso eta gaurkotzea bideratuko dutenak.




Gaur egun lanbide heziketa pertsonaren bizitza aktiboan zehar gauzatuko den prozesu modura ulertzen da eta horregatik egiten Heziketa Arautuaren – printzipioz eskolaratze adinean dagoen ikasleriari zuzendutakoa- eta Etengabeko prestakuntzaren arteko bereizketa, azken hau lanean ari diren langileei zuzendua.

Honela, bada, Heziketa Arautuari eta Etengabeko Heziketari koherentzia ematearren, Kualifikazioen Sistema ezarri zen, pertsonen lanbide bilakaera erakusten duena.

Hona hemen Araututako Lanbide Heziketak barne hartzen dituen ikasketak:

9. Oinarrizko heziketa: DBHn eta Batxilergoan jasotzen den lanbide izaerako heziketa da.
10. Prestakuntza ziklo sail batek osatzen duen berariazko heziketa, maila ertain edo goi mailakoa, iraupen aldakorrekoa eta lanbide eremu jakin bateko ezagutza teoriko-praktikoez osatua.

Eskematikoki, Euskal Herriko hezkuntza sistema era honetara aurkez dezakegu:





V.3 PLANA MAMITZEKO PROZESUA

Euskal Herriko Lanbide Heziketak dinamismo nabarmena erakutsi du azken bosturteko honetan, batik bat, elkarri kateatutako bi faktorek eragindakoa: LHren heziketa arautuan izan den aldaketa, hezkuntza erreformaren ondorioz sortutakoa eta Lanbide Heziketako Euskal Plana abian jarri izana, LHEKren baitan eta gizarte eragileen parte hartze aktiboarekin mamitu dena, Eusko Jaurlaritzak 1997ko apirilean onetsi zuena.

Plan honen emaitzak abiaburu hartuta eta Lanbide Heziketa irakatsi, antolatu eta kudeatzeko moldeetan sortzen ari diren joerak aintzat hartuta, Lanbide Heziketa gaurkotu egin da eta horretarako lau Esparru Estrategiko izan ditu oinarri:

- 1) Prestakuntza eta Lanbide Heziketako Sistema Bateratua gaurkotu eta hobetzea.
 - 2) Garapena eta kalitatearen bermea indartuko duten jarduerak eta helburuak zabaltzea.
 - 3) Berrikuntzari lotutako kultura dinamizatzea.
 - 4) Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera sustatu eta dibertsifikatzea.
- Lanbide Heziketako Euskal Plan berria, 2004-2007 Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrean eztabaidatu zen eta azkenean aho batez 2004ko ekainaren 11n egindako Osoko bilkuran onetsi zen.
 - Arazo Ekonomikoetarako Batzorde Ordezkariek 2004ko urriaren 7an egindako bilkuran Planaren oinarritzko lerro estrategikoak onesteko erabakia hartu zuen; baita, Gobernu Kontseiluak onetsi aurretik Gobernuko Lehendakariordetzaren Koordinazio Zuzendaritzak aipatutako Planaren gaineko txostena egitea.
 - Honela, bada, 2004ko urriaren 27an, Gobernuko Lehendakariordetzaren Koordinazio Zuzendaritzak txostena jaulki zuen Plana Koalizio Erabakiaren edukiei eta Gobernuaren plan, programa eta ekintza adierazgarrien egutegiari egokitzeari buruzkoa; baita Gobernuko beste plan batzuekin inplikazioak sortu eta Plana koordinatu, ebaluatu eta jarraitzeko metodoei buruzkoa.
 - 2004ko urriaren 28an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Azterlanen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak Gobernu Kontseiluaren erabaki proposamenaren aldeko txostena jaulki zuen, Plana onesten zuena.
 - Ekonomia Kontrolerako Bulegoak 2004ko azaroaren 5ean ekonomia kontroleko nahitaezko txostena igorri zuen Plana Onesteko Erabakiaren Proposamenari zegokionez.
 - Gobernu Kontseiluak 2004ko azaroaren 9an egindako bilkuran honako erabaki hau hartu zuen:
 - Lanbide Heziketako Euskal Plana 2004-2007 onestea,
 - Bertan aurreikusitako Planaren aplikazioaren kostu ekonomikoak izaera orientagarria du eta behin-betiko balioespena urteanitzeko izaerarekin aurrekontuko ekitaldi bakoitzean egingo da, ekitaldi bakoitzean dauden aurrekontuko erabilgarritasunen arabera.



- Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzari dagokio Planean barne hartutako neurri eta ekintza guztiak egiteratzea.
- Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak izango du horren exekuzioa kontrolatzeko ardura eta Plana ezartzetik eratorritako emaitzak eta betetze maila neurtuko dituen urteko txostena mamituko du, bertako ekintza eta egitasmoei egozten zaizkien adierazle kuantitatibo eta kualitatiboen arabera. Urteko txosten hau Ekonomia Gaietarako Batzorde Ordezkaritari igorriko zaio onesteko eta kasua balitz, Gobernu Kontseiluari.

V.4 EKONOMIA DATUAK

Esparru estrategiko eta urteen arabera onetsitako gastuen aurrekontua honako hau izan zen:

	Mila euro				
	2004	2005	2006	2007	Guztira
1. esparru estrategikoa					
Kualifikazioen eta Lanbide Heziketako Sistema Integratua osatu, gaurkotu eta hobetzea	88.686	101.113	106.138	111.445	407.382
2. esparru estrategikoa					
Kalitatea Euskal Herriko Lanbide Heziketan	27.183	31.892	33.487	35.162	127.724
3. esparru estrategikoa					
Euskal Herriko Lanbide Heziketan berrikuntza bultzatu etengabeko hobekuntza prozesu modura	27.183	32.742	34.380	36.099	130.404
4. esparru estrategikoa					
Euskal Herriko Lanbide Heziketan teknologia berriak.....	28.579	35.743	37.530	39.406	141.258
GUZTIRA	171.631	201.490	211.535	222.112	806.768

Aurrekontu honetan Sailaren jardura arrunteko gastu kontzeptuak barne hartu dira, Planari gotzi ezin dakizkiokeenak.

Hona hemen kontzeptu eta zenbateko hauek:

	Mila euro				
	2004	2005	2006	2007	Guztira
Irakasleria publikoaren gastuak.....	90.000	94.500	99.225	104.186	387.911
Prestakuntza zikloetako itunak	40.415	44.457	46.680	49.014	180.566
Lan zentroetan prestakuntza	4.024	4.225	4.436	4.658	17.343
Lanerako prestakuntza	12.000	12.600	13.200	13.860	51.660
GUZTIRA	146.439	155.782	163.541	171.718	637.480

Langileria publikoaren gastuek LHko irakasle guztien gastuak barne hartzen dituzte, Planarekin zerikusia duten ala ez alde batera.



Prestakuntza zikloetako itunak ikastetxeekin zehaztutako hitzarmenen ondorioz gauzatzen dira.

Lan guneetan prestakuntza hezkuntza sistemak ezarritako nahitaezko jarduera da.

Lan Sailetik bideratu ohi den lanerako prestakuntza ez da Planean garatzeko jardueratzat hartzen.

Behin aurrekontu modura aurkeztutako kopuruei doiketa hauek egin ondoren, hona hemen osotasunean ondorioztatzen diren kopuruak:

	Mila euro				
	2004	2005	2006	2007	Guztira
GUZTIRA	25.192	45.710	47.994	50.394	169.290

V.5 ARAUDI EZARGARRIA

Ez dago Planean finkatutako neurriak garatuko dituen araudi berariazkorik; ordea, gure lana mamitzean honako arau hauek hartu ditugu kontuan:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
- 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretua, ekainaren 16koa, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena.
- 1/1997 Legegintzazko Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Herriko Ogasun Orokorren Printzipio Arautzaileen testu bateratua onesten duena.
- 222/2001 Dekretua, urriaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko egitura organikoa finkatzen duena.
- 2001eko urtarrilaren 29ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, Lanbide Heziketako Euskal Planak aurreikusten duen Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen sarea osatzen duten ikastetxeen zerrenda argitara ematen duena; baita, aipagai dugun Planean aurreikusitako ondorioetarako lanbide familiarren batean hitzarmenak finkatzen diren ikastetxeena ere.
- 223/2004 Dekretua, Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuaren figura sortu eta arautzen duena.
- Aztergai dugun aldian zehar, Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen sarearen atal diren prestakuntza zentroetan jarduerak garatzeko eta ekipamendu eta obretarako diru-laguntzak emateko deialdiak deitu dituzten hainbat agindu, Lanbide Heziketako Euskal Planaren esparruan aurreikusita dagoen legez.
- 100/1994 Dekretua, otsailaren 22koa, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua sortu eta arautzen duena. 222/1998 Dekretua, irailaren 8koa, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua sortu eta arautzen duen Dekretua aldarazten duena.
- 119/1998 Dekretua, ekainaren 23koa, Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua sortzen duena.
- 62/2001 Dekretua, apirilaren 3koa, Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatze Euskal Agentzia sortzen duena.



- 39/2005 Dekretua, martxoaren 1ekoa, Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa (TNIKA) sortu eta lanpostuen zerrenda onesten duena.

V.6 LANBIDE HEZIKETAKO ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO SAILBURUORDETZA

Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzak dokumentu bat mamitu du, eta eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia terminoetan ebaluaziotzat har ez badaiteke ere, Plan honen esparruetako batzuen garapena zein izan den ezagutzeko bide ematen du. Dokumentua garatzeko aztergai izan den aldian gauzatutako jarduerak Planean jasotako helburuei egokitzeko saiakera egin da.

Gauzatutako ekintzen artean honako hauek aipa ditzakegu:

1. Esparrua. Koalifikazio eta Lanbide Heziketako Sistema Bateratua gaurkotu eta hobetzea.

Esparru honetan barne hartu diren hamabi helburuetatik, gehienak orokor samarrak dira eta honenbestez, proposatutako neurriak horietako bakoitzean errepikatu egiten dira. Aurreikusitako egintzak abian jartzeko lanari Planaren garapenean esku hartu duten erakunde ezberdinetatik ekin zaio. Honela, bada, gauzatutako egintzak honako hauetan laburbil daitezke:

- Agentzietatik, “Gaitasuna Aitortzeko Tresna. Eredua eta Printzipio Nagusiak” agiria mamitu da. Baita, Gaitasuna Aitortzeko Tresnaren prozeduraren eskuliburua” ere. Berebat, beharrezko egokitutako berariazko prestakuntza programa baten bitartez, Gaitasuna Aitortzeko Tresna abian jartzeko ebaluatzaileak eta aholkulariak gaitu ziren.
- TNIKAtik langileriarik prestakuntza tutoritzen bitartez eta urrutiko hezkuntzarako ikasmateriala diseinatu eta garatuz (e-learning) eman zaio.
- Euskal Herriko Kualifikazioen Katalogoaren garapenean aurrera egiteko helburuari dagokionez, Koalifikazio Profesionalen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuak-KEI lehenengo neurrian soilik izan du presentzia: “Kualifikazioak zehazten diren sektoreetan garatzea”. Lanak INCUALekin koordinazioan (Kualifikazioen Institutu Nazionala) Lanbide Kualifikazioen definizioa bi familietan gidatzera mugatu dira: Fabrikazio Mekanikoa eta Mantenimendua, eta INCUALekin gainerako familia eta kualifikazioetan kolaboratzea. Lanbide kualifikazioei buruzko oinarriko araudiak (5/2002 Legea eta ondoko garapena) estatu mailako markoa zehaztu zuen definitzeko eta Autonomia Erkidegoetatik berezko kualifikazioak sortzeko aukera saihestuz eta honenbestez, Estatu osorako kualifikazioen katalogo bakarra sortuz, aipatutako Legearen behin-betiko garapenean zain daudela.
- Lanbide Heziketako Sailburuordetzatik eta Sailburuordearen Ebazpen bitartez Gaitasuna Aitortzeko Tresnaren bitartez teknikari eta goi mailako teknikari tituluak eskuratzeko probak egiteko baldintza, metodologia eta prozedurak finkatu dira.

2. Esparrua: Kalitatea Euskal Herriko Lanbide Heziketan

Esparru honek besarkatzen dituen zortzi helburuetatik, aurkeztutako agiriarik eta izandako elkarrizketek jarraiki, hona hemen gauzatu diren ekintzak:



- Kualifikazioen sistema ebaluatzeko adierazle-taula bat landu da; taula honek ez du Planak besarkatzen duen epe-aldi osoa barne hartzen eta Kualifikazioen sistemari lotutako Prestakuntzaren ebaluazioa egin da, Hezkuntza Ikuskaritzak gauzatutako hainbat auditoriaren bitartez.
- Kalitatearekin lotutako hainbat egiaztagiri eskuratzea sustatu da, ISO 9000 eta EFQM puntuak, esaterako, eta HOBVIDE egitasmoa garatu eta aurkeztu da, EFQM eredu abiaburu hartuta, kudeaketa, autoebaluazio eta LHren hobekuntzarako eredu dena.
- “Investor In People (IIP) nazioarteko estandarra eskuratzeko hainbat jarduera gauzatu dira, prestakuntza eta garapenean egiazko inbertsioa egiteko nazioarteko kalitate eredu dena, pertsonen kudeaketa esparruan hobetuz finkatutako helburu profesionalak eskuratzearren.
- Lanbide heziketarekin lotutako beste esparru batzuetan kudeaketaren kalitatean hobetu izanaren ondorioz, 15 ikastetxek EKOSCAN egiaztagiria eskuratzea ekarri du eta 10ek ISO 14001 egiaztagiria.

3. esparrua: Euskal Herriko Lanbide Heziketan berrikuntza etengabeko hobekuntza prozesu modura bultzatzea.

Esparru honetan barne hartutako hamabi helburuetatik zazpi TKNIKA sortuta gauzatu dira eta bere bidez honako ekintza hauek gauzatu bideratu dira:

- Hainbat egitasmoren garapena, hala nola:
 - Guneka sareak, ikastetxeak kudeatzeko eredu dena, minienpresen kudeaketa eredu ezartzea helburu duena, ikastetxeak bezero geruza bakoitzari zuzendutako kudeaketa unitateetan egituratuz.
 - Ardatz egitasmoa: hezkuntza-ikastetxe bateko pertsonen gaitasunak kudeatzen dituen programa;
 - Urratsbat programa: LHko ikasleen artean ekimen jarduerak sustatzea du helburu, ikastetxeak enpresa haztegi bihurtuz, eta pertsona sustatzaile eta ikasleriari ikastetxeetako instalakuntzak eta ekipamendua erabiltzen uzten.
- TKNIKAtik dinamizatutako egitasmo teknologikoak, prestakuntza ekintza ezberdinak besarkatzen dituenak.
- NTIC'ak lanbide heziketako didaktikan dituzten aplikazioei buruzko prestakuntza programa berariazko bat ematea irakasleriari. (KAIOA proiektua).
- Berebat, eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren bitartez Premia II Plana sustatu eta garatu da; horren helburua irakasleria eta ikasleria beharrezko dituzten baliabideez hornitzea da, euren eskolak prestatu, eman eta jasotzeko orduan NTIC'ak abiaburu hartu ditzaten. Horretarako, ikastetxeetako tokiko sarea ikasgela arruntera zabaltzeko da, ekipamendu informatiko berria ekarri eta konektibitatea eta zerbitzuak hobetu dira.

4. esparrua. Euskal Herriko Lanbide Heziketan informazio eta komunikazioaren teknologia berriak (NTIC's).



Esparru honek besarkatzen dituen hamabi helburu berariazkoei dagokienez, honako egintza hauek gauzatu dira:

- KAIOA proiektua, NTIC'ak erabiltzen ikasteko irakasleria prestatzeko. Software askean oinarritutako zerbitzu plataforma bat garatzea du helburu, ikastetxe bakoitza pertsonalizatzeko eta zerbitzu berriak garatzeko bide ematen duena eta ikastetxe bakoitzak iturri-kode osoa eskura izango duena; hartara, ikastetxeetako programatzaileen artean garapen komuna sustatuko da eta honenbestez, ahaleginak berrerabili ahal izango dira. Organizazioaren barruan, ikastetxeek teknologia hauek erabiltzera bultzatu eta sentikortu.
- Aurrez azaldutako Premia II Plana.
- Sailak langileak kontratatzea enpresa, ikerketa zentro eta unibertsitateekiko lankidetzan dinamizatu eta bideratzeko.
- Tutoreak prestatzea e-learning ikastaroetan.

V.7 LANBIDE HEZIKETARAKO EUSKAL KONTSEILUA

Erakundearteko organoa da, 1994an 100/1994 Dekretu bitartez sortua; Araututako eta arautu gabeko Lanbide Heziketa arloan erakundeek eta indar sozialek parte hartzeko organoa izango da. Gerora, 222/1998 Dekretu bidez aldatu zen kontseilarien eta ordezkarien osaera, izendapena eta iraupena zehazteko. Bertan, Eusko Jaurlaritzako hainbat sail, Foru Aldundiak, enpresa eta sindikatu etako ordezkariak eta ikastetxe publiko zein pribatu etako ordezkariak daude ordezkatuak.

Kontseiluaren helburua ekintza ezberdinak koordinatzea da, erakunde ezberdinak elkar gainezarri ez daitezen eta bestetik, eskuragarri dauden baliabideak optimiza daitezen.

LHEKren egitekoak, besteak beste, honako hauek dira:

- Nahitaezko izaerarekin, Eusko Jaurlaritzak onar dezan, EAEren Lanbide Heziketako Plan Orokorra lantzea, horren exekuzioa eta betetze maila kontrolatzea, emaitzak ebaluatzea eta LH gaietan Administrazioari aholku ematea.
- Nahitaez curriculumen diseinuen berri eman eta LHko titulazio berriak proposatu, Arautu gabeko LHn profesionaltasun egiaztagiriak, erkidegoko kualifikazioen ordainetan eta kasua balitz, Araututako LHko titulazioekiko baliokidetzaren sistema.
- EAEren erakunde eta ikastetxe etako prestakuntza planen organo integratzaile eta koordinatzaile modura aritzea, Araututako eta Arautu gabeko LH gaietan hezkuntza, ekoizpen eta unibertsitate zentroetan ekintzen gainean informatuz, baloratu eta bultzatuz.

LHko Lehendakariak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak du. Lehendakariordetza, Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Lan Sailburuordearen esku dago. Idazkari kargua, berriz, Saileko funtzionario batek betetzen du.

Kontseilari izendatzen dituzte:



· Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sail eta Lan eta Gizarte Segurantza Sail bakoitzeko bi ordezkari.

· Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko ordezkari bat eta Nekazaritza eta Arrantzu Saileko beste ordezkari bat.

· Foru Aldundietako ordezkari bat.

· Enpresen Euskal Konfederazioko zazpi ordezkari.

· Erakunde sindikaletako zazpi ordezkari.

· LH ematen duten ikastetxe pribatuetako bi ordezkari eta ikastetxe publikoetako beste bi.

Kontseilari guztiak Kontseiluko OSOKOAREN kide dira; ordea, Batzorde Iraunkorra honako hauek osatzen dute:

· Kontseiluko Lehendakariak edo eskuordetzen duen kideak.

· Administrazio Autonomikoko bost ordezkari.

· Enpresen Euskal Konfederazioko bost ordezkari.

· Erakunde sindikaletako bost ordezkari.

· LHko ikastetxe pribatuetako ordezkari bat.

· LHko ikastetxe publikoetako ordezkari bat.



LHEK-k Planak indarrean iraun duen bitartean egindako gastuak, berariazko helburu bati egotz ezin dakizkiokeenak, honako hauek izan dira:

	Mila euro		
	Aurrekontua	Obligazioak	% Exekuzioa
2004 urtea			
Funtzionamendu gastuak:	241	82	%34,02
2005 urtea			
Funtzionamendu gastuak:	250	6	%2,40
2006 urtea			
Funtzionamendu gastuak:	255	2	%0,78
2007 urtea			
Funtzionamendu gastuak:	56	4	%7,14
GUZTIRA	802	94	%11,72

Planak indarrean iraun duen epe guztian zehar, LHEK-k ez du horren gaineko kontrol jarraipenik egin, emaitzak eta betetze maila ebaluatuz, finkatua zegoen moduan.

LHEKren Batzorde Iraunkorrek 2009ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran aho batez eta Langile Batzordeak-en (CCOO) boto partikularrekin Plana ebaluatzeko agiri bat onetsi zuen; bertan, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak emandako Lanbide Heziketako II. Euskal Planaren Ebidentziak Biltzeko Agiria abiaburu hartuta, Sailburuordetzaren iritzira aipatutako Planean egokien garatu diren edo sendoen izan diren puntuak eta gutxien garatu direnak edo ahulenak aurkezten dira.

Aipatutako ebaluazioan barne hartu diren ondorioetatik honako hauek azpimarratu behar ditugu:

- 1) Beharrezkoa da LHEK Euskal Herriko LHren erakunde “eragile” modura berreskuratu eta indartzea. Horretarako beharrezkoa izango da urtero LHEK-k lanerako plana zehaztea eta funtzionamendurako aurrekontua egokitzea.
- 2) Planean jasotako beste elementu bat Sailaren eta LH garatzeko politiketan esku hartzen duten erakunde ezberdinen arteko koordinazioak eta lankidetzak izan behar du; koordinazio hori LHEK-k bere lanerako planaren baitan gauzatu beharko luke.
- 3) Kualifikazio eta lanbide heziketako sistema integratuari dagokionez, beharrezkoa da gauzatzeko dagoen arautegia mamitzea.
- 4) Beharrezkoa da, Planak adierazten zuen legez, biztanleria aktiboaren kualifikazio mapa bat eta garabidean diren profil berrien gaineko azterlanak izatea, kualifikazio profesionalen sistema une bakoitzean bizi den errealitatera egokitzeko balioko diguna.

Berebat, azpimarratu egin beharko litzateke LH gertatzen diren aldaketetara ahalik eta azkarren egokitzeko beharra, ez soilik lan merkatuak eskatzen dituen lanbide profilei dagokienez, baita estaldura eman beharko zaien kolektibo motari dagokionez ere. Honi dagokionez, beharrezkoa izango da presentzialak ez diren prestakuntza moldeak erabiltzea eta ikastetxeetako ordutegiak langileen prestakuntza eskarrietara egokitzea.



5) Aurrekontuari dagokionez, beharrezkoa da hurrengo LHko Euskal Plana behar hainbateko aurrekontuaz hornitzea, honek aurreikusten dituen eta inplementatuko diren ekimen guztien garapenari aurre egiteko.

Aurrekontu honek ez ditu Ikastetxeen funtzionamendurako gastu arruntak barne hartu behar, zuzenean Plan berriaren exekuziorako erabiliko diren kontu-sail haiek soilik.

V.8 LANBIDE HEZIKETAKO KALITATEA ETA GAITASUNA EBALUATZEKO EUSKAL AGENTZIA

62/2001 Dekretu bidez sortzen da eta funtzionalki LHEKren baitakoa da eta organikoki, berriz, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzaren baitakoa.

Agentziaren egitekoa pertsonen lanbide gaitasuna hobetzen laguntzea da, Euskal Herriko LHko sistemaren kudeaketan kalitatea sustatzea eta emaitzak balio-neurtzea.

Hona hemen Agentziak zein esparrutan garatzen dituen egitekoak:

- 1) Biztanleria aktiboaren lanbide gaitasuna ebaluatzea, lanean ari denarena zein lanean ari ez denarena.
- 2) Planean aurreikusitako LHko sistemaren kalitatea hobetzea, osatzen duten azpisistemak ebaluatuz.

Biztanleria aktiboaren lanbide gaitasuna ebaluatzeko esparruan egitekoak.

- a) Indarreko araudiari jarraiki eta KEIrekiko lankidetzan, lanbide gaitasuna ebaluatzeko sistema bat zehaztu eta garatzea.
- b) KEIk ezartzen dituen irizpideei jarraiki, arautegi ezargarriaren arabera lanbide gaitasun eta kualifikazioak ebaluatu eta egiaztatu ditzaketan ikastetxe, entitate eta erakundeak homologatzea.
- c) Pertsonen bereganatutako lanbide gaitasuna ebaluatuko duen egitura inplementatzeko prestakuntza-ikastetxe eta erakunde homologatuekin lan egitea.
- d) LHko sistemaren kalitatea ziurtatzeko beharrezko diren egiaztatze tresnak finkatu, ezarri eta jarraipena egitea.

Euskal Herriko LHren sistemaren kalitatea hobetzeko lanean egitekoak.

- a) LHko sistema osoari ezargarria zaion kalitatea ebaluatzeko eredu zehaztu eta horren erabilera garatu, koordinatu eta gainbegiratu.
- b) LHko sistemaren kalitatea sustatzeko politika zehaztu eta abian jartzea, gogobetekotzat hartu behar diren kalitate neurriak, baldintzak eta mailak finkatuz; halaber, LHko sistemaren eraginkortasun eta efizientzia maila ebaluatzea bideratuko duen kalitatezko-adierazleen sistema hezurramitzea, aurreko idatz-zatian aipatutako kalitate-moldearen arabera. Egintza hauek guztiak beste erakunde eta administrazio batzuekin lankidetzan gauzatu beharko dira.
- c) LH sistemako ikastetxe eta erakunde ezberdinak horien kudeaketaren kalitate mailak ebaluatu eta autokontrolatzeko gaituko dituzten prozedura eta tresnez hornitzea; baita, kudeaketa horren kalitate mailak kanpotik egiaztatzeko prozedura eta baliabideez ere.



- d) LH sistemako ikastetxe eta erakunde ezberdinei laguntza teknikoa eskaini euren kudeaketa hobetzearren.
- e) LH sistemaren ebaluazio globala egin eta bereziki, luze-zabalaren eta bertan jasotako izaera orokorreko aldaketa eta berrikuntzen ondorioen gaineko ebaluazioa.

Egiteko hauez gain, Agentziaren ardura izango da dagozkion egiaztagiriak jaulkitzea, ezargarria den arautegiari jarraiki eta bere ardurapean geratuko da Lorpen Profesionalen Erregistroa, egiaztagiri horiek zaindu eta artxibatzeko baliabide gisara.

Aurreko artikuluetan adierazitako egitekoak alde batera, Agentziak txosten eta azterlanak mamitu ahal izango ditu eta egoki iritzitako proposamenak horretarako eskumena duten erakundeei aurkeztu, LH sistemaren kalitatea eta horri lotutako prestakuntzaren ebaluazioa hobetzera zuzenduta.

Lanbide Heziketarako Euskal Plana (2004-2007)

Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordearekin izandako elkarrizketei jarraiki eta aipatutako Planean aurreikusten diren helburu kopuru adierazgarria aintzat hartuta, Agentziak horiek betearazteko erantzukizun zuzena zuen haien berri eman ziguten.

Hona hemen 2004-2007 aldian markatutako helburua eta horien lorpena:

1. Esparru Estrategikoa. Kualifikazio eta Lanbide Heziketako Sistema Bateratua gaurkotu eta hobetzea.

Esparru honetan Agentziak garatutako edo garatzear dituen helburu estrategikoak honako hauek izan dira:

- 1.1. helburua: Biztanleria aktiboaren gaitasuna aitortu eta ebaluatzeko tresna ezartzea.

Helburu hau betetzeko ezarri ziren neurriak honako hauek izan ziren:

- Agentziaren aldetik Euskal Herrian Gaitasuna Aitortu eta Ebaluatzeko Sistemaren gainean oinarritzko dokumentua mamitzea.
- Lanbide gaitasunaren ebaluatzaile eta egiaztatzaileak prestatu eta egiaztatzeoko programa mamitu eta inplementatzea.
- Gaitasuna aitortu eta ebaluatzeko ikastetxeak homologatzeko prozedura diseinatzea.
- Gaitasuna aitortu eta ebaluatzeko ziurrenik beharrezko izango den agiri bidezko euskarria mamitu eta inplementatzea.

- 1.2 helburua: biztanleria aktiboaren gaitasuna aitortu eta ebaluatzea.

Helburu hau betetzeko ezarri ziren neurriak honako hauek izan ziren:

- Biztanleria aktiboaren gaitasuna aitortu eta ebaluatzeko ekintzak landu eta inplementatzea.
- Prozesu honetan esku hartuko duen biztanleria aktiboa hautatu eta sailkatzea.
- Tutore/orientatzaileak izangai bakoitzeko prestakuntza plan bat egin beharko du, lortu nahi dituen eta eskura dituen egiaztatze profesionaleko helburuak eskuratzea bideratuko diona.



- Izangai bakoitzari tutorea/orientatzailea esleitzea.
- Tutore/orientatzailearen aldetik, izangaien kualifikazio eta etengabeko ikaskuntzan aurrera egiteko orientabidea eta eragipen ekintzak garatzea.
- Izangaien aldetik tutorearen/orientatzailearen laguntzarekin, duten lanbide gaitasuna egiaztatzeke beharrezko dokumentazioa prestatzea.
- Agentziak baimendutako ebaluatzaileen aldetik, gaitasunen karpeta ebaluatzea eta kasua balitz, Lanbide Gaitasuna Aitortu eta Ebaluatzeke Tresnaren ebaluazio zentro homologatuetan dagozkion ebaluazio probak egitea.
- Ebaluatzea eta, kasua balitz, Agentziak baimendutako ikastetxeen aldetik prestakuntza planarekin eskuratutako gaitasuna egiaztatzea.

1.9 helburua: Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeke Euskal Agentzia indartzea.

Helburu hau betetzeko ezarri ziren neurriak honako hauek izan ziren:

- Giza baliabideen Agentzia gaitasuna aitortu eta ebaluatzeke agindutako egitekoak kudeatu eta gainbegiratzeko beharrezko giza eta gauzazko baliabideez hornitzea.
- Agentziak jarduera programa bat mamitu behar du, egiteko berriei aurre egiteko baliabideak eta beharrezko diren epeak zehaztuko dituen.
- Agentziak agindu zaizkion jardueren jarraipen eta kontrola bideratuko duten txostenak egin eta LHEKra igortzea.

Aztertutako aldiaren helburu hauei dagokienez gauzatu diren ekintzak honako hauek izan dira:

- “Gaitasuna Aitortzeke Tresna. Eredua eta Printzipio Nagusiak” agiria mamitu zen.
- “Gaitasuna Aitortzeke Tresnaren prozeduraren gidaliburua” mamitu zen.
- Saileko Sailburuordearen ebazpena, Gaitasuna Aitortzeke Tresnaren bitartez teknikari eta goi mailako teknikari tituluak eskuratzeko probak egiteko baldintzak, metodologia eta prozedurak finkatzen dituen.
- Aholkulari eta ebaluatzaileak prestakuntza programaren arabera hezten dituzte. Prestakuntza aholkulari eta ebaluatzaileen beharizanen arabera eman da eta prestakuntzaren luze-zabala areagotu ahala.
- Ebaluazioa ebaluatzaile taldeek egiten dute eta ez Ikastetxeek. Badaude informazioa eman, izangaiek izena eman, aholku eman eta probak egiten diren Ikastetxe laguntzaileak, baina ebidentzien gaineko epaia ebaluatzaile taldeen eskuetan dago.
- Ebidentzien gidaliburuaz gain, ebaluazioa euskarrizten duten bestelako material eta betekizunak mamitu dira.

2. esparru estrategikoa: Euskal Herriko Lanbide Heziketan kalitatea.

Esparru honetan Agentziak garatutako edo garatzear dituen helburu estrategikoak honako hauek izan dira:

2.2 Helburua: Euskal Herriko lanbide kualifikazioen sistema ebaluatzea.



Helburu hau betetzeko ezarri ziren neurriak honako hauek izan ziren:

- Hirurteko maiztasunarekin Euskal Herriko lanbide kualifikazioen sistemaren gaineko ebaluazio kualitatiboa egitea.
- Urtebeteko maiztasunarekin Elkarteko Asoziatuak Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemaren gaineko ebaluazioa egitea.
- LHko sistema ebaluatzeko alderatutako sistema bat izatea. Ahal den neurrian, Europar Batasuneko herrialde eta eskualde ezberdinetako adierazleekin alderatzea.

2.3 helburua. Sistemaren barne hartutako ikastetxe eta entitateen kalitatearen kudeaketan aurrera egitea.

Helburu hau betetzeko ezarri ziren neurriak honako hauek izan ziren:

- Ikastetxe guztietan kalitate sistemen ezarpena bultzatzea.
- Kalitate programen garapenerako finantza eta langile baliabideez hornitzea.
- Kalitate sistemen kudeaketa arduradunei zuzendaritza egitekoa aitortzea.
- Ikastetxeen kalitate sistemak ISO 9001:2000 arauaren eskakizunetara egokitzea eta ikastetxe guztien egiaztagiria eskaintzen duten prestakuntza multzoari dagokionez; berebat, arrakastaz gainditzea jarraipenezko auditoriak.
- Ikastetxeen kudeaketaren oroitidazki deskriptiboak mamitzea EFQM ereduaren arabera.
- Kanpoko ebaluazioa egin, hiru urtean behin gutxienez, aurreikusitako helburuen garapen eta aurrerapena bermatzearren.
- LHko Euskal Sistemaren kudeaketa eta ebaluaketarako EFQM eredu hartzea erreferentetzat.

2.5 helburua: Giza baliabideen kudeaketa eta zuzendaritza hobetzea.

Helburu hau betetzeko ezarri ziren neurriak honako hauek izan ziren:

- Lanbide Heziketako Ikastetxeetan kudeaketa eredu berriak esperimentatu, horien funtzionamendua egungo beharrezanetara hobeto egokitzeko moduan.
- IiP (Investors in People) nazioarteko estandarra eskuratzeko esperientzia garatzea. Dena delako estandar hori nazioarte mailako eredu da, prestakuntza eta garapenean egiazko inbertsioa egiteko eta aldez aurretik finkatutako helburu profesionalak eskuratzeko. Langileen garapen prozesuak eta etengabeko hobekuntza estandarizatzeko esparrua bideratzen du; prestakuntzarako gerturapen egituratua, prestakuntza beharren eta negozioaren helburuen arteko lotura bidez; eta barne komunikazioa garatzen du, motibazio mailak eta plantilari eustea hobetuz.
- LH hobetzeko pertsona eta ekipoen ekarpena aitortzeko sistema diseinatu eta garatzea.
- LHn hutsik dauden plazarak betetzeko egungo sistema berrikusi eta hobetzea.

2.8 helburua: lanbide heziketarekin lotutako beste esparru batzuetan kudeaketaren kalitatea hobetuko duten beste egiaztagiri batzuk ezartzea.

Helburu hau betetzeko ezarri ziren neurriak honako hauek izan ziren:



- Lanbide heziketako ikastetxeetarako egokia den eredia garatuko duten beharrezko lan batzordeak sortzea, EKOSCANen bitartez ISO 14000 egiaztagiria eskuratzeko aukera emango diena. Ekoscan Egiaztagiria sistema garden eta objektiboa zehazteko behararen ondorio da, kanpoko ebaluazio baten bitartez hainbat erakunde ingurumenaren alde egiten ari den ahalegina ezagutzeko bide emango duena.

Aztertutako aldiaren helburu hauei dagokienez gauzatu diren ekintzak honako hauek izan dira:

2.2 helburua

- Adierazleen panela, Planaren aldi osorako gaurkotutako datuak barne hartzen ez dituztenak, baina.
- ACC izeneko Kualifikazioen Sistemari Lotutako Prestakuntzaren ebaluazioa egiteko hainbat betekizun ezarri zituen Agentziak, Euskal herriko Kualifikazio Profesionalen Sistemari lotutako prestakuntza ikastaroen diseinu eta garapen prozesurako. Ikastetxeek ikastaroak kudeatzeko sistemak betekizunek bereizten dituzten ildoei jarraiki egokitu behar dituzte. Hezkuntza Ikuskaritzak hainbat auditoria gauzatu ditu aztergai izan dugun aldiaren betekizun hauen betetze maila egiaztatzeko (2004-2005, 2005-2006, 2006-2007 ikasturteak).
- Ez dira LHrako adierazle partekatuak lortu Europar Batasuneko herrialde eta eskualde ezberdinetako adierazleekin.

2.3 helburua

- Agentziak kalitate programen garapenerako eta Ikastetxeetako langileez osatutako ekipo bat izateko berariazko aurrekontua du, programa bereziei laguntza emateko ordu-irakasle tipoak finkatzen dituena. Kalitatearekin lotutako arduradunak Ikastetxeetako zuzendaritza taldeetan daude.
- Oroitidazki bat gauzatu da kalitatearekin lotutako egiaztagiri ezberdinak eskuratu dituzten ikastetxe guztiekin: ISO 9001:2000, EFQM puntuak, Hobbide proiektua garatu eta aurkeztu da, EFQM eredia abiaburu hartuta, Lanbide Heziketa kudeatu, autoebalatu eta hobetzeko eredu dena.

2.5 helburua

- GUNEKA programa garatu da eta Inbestor In People egiaztagiria eskuratu da hainbat ikastetxetan.
- Ikastetxeek lanpostuak efikazia handiagoz betetzen direla jakinarazi diguten arren, ez da irakasleriaren egonkortasun handiagoa bermatuko duen aldaketarik gertatu.
- Lanbide Heziketako Sailburuordetzak banakako irakasleei zuzendutako egitasmo-lehiaketa bat jarri du abian, irakaskuntza-praktika onenak aitortzeko helburuarekin.

2.8 helburua

- Hamasei ikastetxek dute EKOSCAN egiaztagiria eta beste hamarrek ISO 14001 egiaztagiria.



Bi helburu hauek betetzeko Agentziak duen langileria zuzena bi pertsona, talde ebaluatzaileetako hamabost buru eta laguntzaile batekoa da. Berebat, Gaitasuna Aitortzeko ebaluazioa gauzatu ahal izateko, Lanbide Heziketako Ikastetxe ezberdinetan neurri hau gauzatzeko egitekoetan esku hartu duten aholkulari eta ebaluatzaileen kopurua honakoa izan da:

Urtea	Aholkulari kop.	Talde kop. Ebaluatzaileak
2005	46	19
2006	51	27
2007	54	28

Hainbat titulaziotan Gaitasuna Aitortzeko egiaztatzea eskatu eta eskuratu duten pertsonen kopurua honakoa izan da:

	2005	2006	2007	Guztira
Izen emandako izangai kopurua.....	890	599	676	2.165
Aholkua jaso duten izangai kopurua	805	541	616	1.962
Gaitasun Aitorpena aurkeztutako izangai kopurua	500	446	519	1.465
Titulua eskuratu duen izangai kopurua.....	28	77	112	217

Jardueren araberako informazio ezaren ondorioz, Agentziak egindako gastuak ezin zaizkie helburu estrategiko ezberdinei egotzi.

Hona hemen Planaren indarraldian zehar, Planean ezarritako helburuei zuzenean egotz ezin dakizkiekeen Agentziak gauzatuak gastuak zein izan diren:

	Mila euro		
	Aurrekontua	Obligazioak	% Exekuzioa
2004 urtea			
Funtzionamendu gastuak	186	186	%100
2005 urtea			
Funtzionamendu gastuak	108	138	%127,78
Inbertsioak	0	3	%0
2006 urtea			
Funtzionamendu gastuak	152	146	%96,05
Inbertsioak	0	10	%0
2007 urtea			
Funtzionamendu gastuak	125	189	%151,20
GUZTIRA	571	672	%117,69

Halaber, Lanbide Heziketako Zuzendaritzak 2004-2007 aldian zehar Planarekin lotutako jardueretan egindako gastuak honako hauek izan dira:



	Mila euro
	Obligazioak
2004 urtea	
Eredu berria zabaltzea	209
Laneko gaitasun ebaluatzea	12
2005 urtea	
EFQMko oroitidatziak mamitzeko prestakuntza	87
Laneko gaitasun ebaluatzea	1
2006 urtea	
Kualifikazio sistemen hedapena.....	150
Laneko gaitasuna ebaluatzea.....	12
EFQM ebaluatzeko erreminten diseinu, prestakuntza, abian jartzea	12
2007 urtea	
Kalitatea aitortzea	13
Kualifikazioen sistema zabaltzea	30
Laneko gaitasuna ebaluatzea.....	74
EFQM ebaluatzeko erreminten diseinu, prestakuntza, abian jartzea	69
Investor in People aholkularitza	11
GUZTIRA	680

Gastuen agiri euskarriaren gainean egindako azterketatik, honako hauek zatikatu direla ikusi dugu:

- EFQM memoriak mamitzeko 81 mila euroko prestakuntza gastuak
- EFQM oroitidazkia mamitzeko eta ikastetxeetan kolaboratzeko 47 mila euroko gastuak.

Gogoan hartu behar da Agentziaren finantza autonomia aztertutako aldiaren 3 mila eurokoa izan dela eta honenbestez, kopuru horrezaz gaindiko gastuen kontratazioa Lanbide Heziketako Zuzendaritzatik egiten dela.

Azkenik, kontratazio espedientearen azterketatik ikusi dugu aztertutako espedienteetako batean:

- Ez dagoela artekaritzak jaulki behar duen krediturik badagoelako egiaztagiria.
- Ez dela egoki justifikatu premiazko izapidearen erabilera.
- Ez dira behar hainbat justifikatu aldaketa eragin duten beharrak eta ez da prestazio berriei dagokienez, bertan zehaztutako edukia baloratu, ez eta dagokion zenbatespen ekonomikoa egin ere.



V.9 KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA

119/1998 Dekretuaren bitartez Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua sortu zen.

Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua (KEI) kualifikazioen egitura zehaztu eta Lanbide Kualifikazioen Sistema ezarri eta kalitate eta giza-balorazio maila gorenetan eusteko ardura duen organoa da; baita, lanbide prestakuntza garatu eta hobetzera zuzenduko duten ikasketa eta jarduerak bultzatzekoa ere.

Hona hemen KEIren egitekoak:

- a) Ekoizpen prozesuen, lan merkatuaren eta pertsonen kualifikazio beharrak identifikatzea eta horretarako, gaitasunaren ereduak bereizi eta definitzea, ekoizpen sistemaren esku hartze zuzenarekin.
- b) Gobernu Kontseiluak onesteko Lanbide Kualifikazioen Euskal Katalogoa definitu, alde aurretik LHEKren txostena jasota, ekonomiaren eta pertsonen beharrianak gogobeteko dituen.
- c) Lanbide gaitasunak definitzeko irizpideak zehaztea.
- d) Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotutako prestakuntza egituratzea.
- e) Lanbide heziketa berri eta garatzea eta dauden curriculoak gaurkotzea.
- f) Euskal Gaitasunen estandarrak zehazten, sektoreen eskaerak eguneratzen eta Lanbide-Koalifikazioen Euskal Katalogoa egiten gizarteko subjektuei ardurak ematea.
- g) Lanbide-koalifikazioen sistemari lotutako moduluen katalogoa zehaztea.
- h) Lanbide gaitasunak definitzeko irizpideak zehaztea.
- i) Ikastetxeak eta erakundeak homologatzeko irizpideak jartzea lanbide-gaitasunak eta lanbide-koalifikazioak baloratu eta egiazta ditzaten.

Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua iharduera-atal hauetan banatzen da haren funtzioak bete ditzan: Lanbide-koalifikazioen atala. Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide kualifikazioak zehaztu eta eguneratu behar ditu eta eskuratzeko prozedurak ezarri.

Lanbide Heziketako Atala. Prestakuntza egituratu behar du eta Kualifikazioen Sistemari Lotutako Moduluen Katalogoa zehaztu behar du.

Baloratzeko eta Egiaztatzeko atala. Baloratzeko eta egiaztatzeko atalak gaitasuna baloratzeko moduak zehaztu behar ditu, baloratzeko gaitasun-nabaritasunaren motak lotu behar ditu nabaritasunak lortzeko iturri edo moduekin, eta balorazioa zehaztuko duten irizpideak eta prozedurak garatu behar ditu.

Lanbide Kualifikazioen Sistema ondoko hauetarako baliabidea da:

- Enpresek zein motatako profesionalak behar dituzten identifikatzen du.
- Pertsonen profesionaltasun hori nola lor dezaketen jakinarazten die.
- Hartutako profesionaltasuna egiaztatu eta erregistratzen du.

Hona hemen sistemaren helburuak:



- LHren sistemari koherentzia ematea.
- Pertsonen prestakuntza eragin eta hobetzea.
- Pertsonen bilakaera profesionala bideratzea.
- LHren kalitatea hobetzea.

Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen sistema oinarrizko bost helburu eskuratzera zuzendua dago:

- Lehiakortasuna hobetzera: Ekonomiaren lehiakortasuna hobetzea bultzatzea, kualifikazio beharrei erantzun eraginkorra emango dioten gaitasunak identifikatuz.
- Pertsonen motibazio handiagoa: Pertsonen motibazio handiagoa eman euren lanbide gaitasuna garatzeko eta bizitzan zehar prestakuntza emateko, lanbide kualifikazio baterako irispide hobea eskainita. Hobekuntza hori lortzeko, prestakuntza, ikaskuntza edo lan eskarmentuko zehar prozesu bidez jasotako gaitasunak aitortu behar dira.
- Lan merkatuaren gardentasuna: Ekoizpen prozesuek behar dituzten gaitasunak kodifikatuz eta sistemaren egiaztagiri ezberdinetarako egiazko irispidea izanik, lan merkatuaren gardentasuna hobetu.
- Lanbide Heziketaren kalitatea: LHren kalitatea modalitate orotan hobetu eta lanbide gaitasunen erreferentziazko esparrua eskaini, administrazio, prestakuntzako erakunde pribatu eta enpresek eskaintzen dituzten programa eta ekintzak norabidetuko dituen.
- Pertsonen bilakaera profesionala bideratzea: Pertsonen bilakaera profesionala bideratu eta lanbide kualifikazioen egituraren eskuragarrien diren aurrerabideak erakutsiko dituzten ibilbideak adierazi.

Biztanleria aktiboa lanbide kualifikazioetara iristen da bai berriaz horretarako diseinatutako prestakuntza programen bitartez, laneko bizitzan zehar eskuratutako gaitasuna aitortuz eta/edo bi prozedurak elkarri lotuz.

Helburuak eskuratzeko, Euskal Herriko Kualifikazioen Sistemak bi osagai oinarrizko ditu:

- Kualifikazioen katalogoa
- Gaitasuna Aitortu eta Egiaztatze sistema.

Berriaz kualifikazioen sistemaren atal ez bada ere, horri lotuta, Prestakuntzako Moduluen araberrako Katalogo Integratuaren sorrera gauzatu da.

Honela, bada, oinarrizko osagai guzti hauen multzoak osatzen du Planari gorputza ematen dion Kualifikazioen Sistema Integratua.

Lanbide Heziketarako Euskal Plana (2004-2007)

Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordearekin izandako elkarrizketei jarraiki eta aipatutako Planean aurreikusten diren helburu kopuru adierazgarria aintzat hartuta, Institutuak horiek betearazteko erantzukizun zuzena zuen haien berri eman ziguten.

Hona hemen adierazitako helburuak eta horien egintza 2004-2007 aldian zehar:



1. Esparru Estrategikoa. Kualifikazio eta Lanbide Heziketako Sistema Bateratua gaurkotu eta hobetzea.

Esparru honetan Institutuak garatutako edo garatzear dituen helburu estrategikoak honako hauek izan dira:

1.4 helburua: Kualifikazioen eta lanbide prestakuntzaren informazio bide ezberdinak erabiltzea.

Helburu honek beste hainbat helburu hartzen zituen bere baitan, hala nola:

- 1.4.1. Beharrezko diren helburuak eskuratzeko kualifikazio eta lanbide heziketa sistemako eragile guztiak motibatzen laguntzea eta euskal gizarte osoa gizarte kualifikatua izateko eta etengabeko irakaskuntza lortzeko esku hartzen laguntzea.
- 1.4.2. Prestakuntza eta lanbide kualifikazio politika planifikatzeko informazioa emango duen baliabidea eskuratzeko.
- 1.4.3. Beharrizan guztien plangintza eta arretarako eta kualifikazioen eta lanbide heziketaren garapen koordinatua izateko oinarriak finkatzea, eskakizun teknologiko, ekonomiko eta sozialaren arabera.
- 1.4.4. Kualifikazioaren eta prestakuntzaren planifikazioak, kualifikazio eta lanbide heziketako helburuetan zehazten denak, zehazki honako hau berma dezala:
 - a) Biztanleria aktiboaren lanbide kualifikazioko mailak beharrezkoak izatea, bai kualitatiboki, bai kuantitatiboki ere, Euskal Herriaren garapen ekonomiko eta sozialaren helburuak lortzeko.
 - b) Ikastetxe publiko eta itunpekoen kopurua, neurriak eta kokalekua, eta orokorrean, prestakuntza eta lanbide orientazioko eskaintza behar hainbatekoak izatea kualifikazio eta gizarte eskakizunen beharrezanean aurre egiteko.
 - c) Biztanleria aktiboak egiten dituen ebaluazio eta lanbide eskumena egiaztatze eskariei erantzuna ematea.
 - d) Kualifikazioak eta lanbide heziketa garapen teknologiko, ekonomiko eta sozialaren beharrezanean egokitzen zaizkiela.

Helburu hauek gauzatu ahal izateko, 1.4.2 helbururako soilik ezarri ziren neurriak; hona hemen:

- “Kualifikazio eta Lanbide Heziketei buruzko Biurteko Txostena” mamitu eta argitara ematea.
- “Kualifikazio eta Lanbide Heziketei buruzko Biurteko Estatistika” mamitu eta argitara ematea. Datu bilketa eta horien prozesua egiten denean, bertan pilatutako informazioa eta datuak erabili ahal izango dira kualifikazioak eta LH planifikatu, antolatu eta orientabidea emateko, finkatutako gidalerro eta erantzukizunen arabera. Kualifikazioei, prestakuntzari eta lanbide orientazioari buruzko informazioak eta estatistikak, ezinbestean, zera besarkatuko du:
 - Kualifikazioen Sistemari buruzko datuak eta informazioa.
 - Kualifikazioen izaera eta bilakaerari buruzko datuak eta informazioa.



- LHri buruzko datuak eta informazioa modalitate guztietan.
- Lanbide orientazioari buruzko datuak eta informazioa.
- Prestakuntza-enplegua loturari buruzko datuak eta informazioa.

Gainerako helburuei dagokienez, ez dira gauzatu beharreko neurriak aurreikusi eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak 2006-2010 aldirako mamitu duen Plan estrategikoan barne hartu dira.

1.7 helburua: Kualifikazioen eta Lanbide Heziketako Euskal Institutua indartzea.

Hona hemen helburu hori gauzatzeko bideratutako neurriak:

- Institutua agindu zaizkion I+D+I egitekoak gauzatu ahal izateko beharrezko giza eta gauzazko baliabideez hornitzea.
- Institutuak Behatokiaren laguntzarekin batera, urteko jarduera programa bat mamitu behar du, egiteko berriei aurre egiteko baliabideak eta beharrezko diren epeak zehaztuko dituen.

1.10 helburua: Euskal herriko lanbide kualifikazioen katalogoaren garapenean aurrera egitea.

Helburu hau gauzatzeko honako neurri hauek finkatu ziren:

- Zehazten diren sektore produktiboetan Lanbide Kualifikazioak garatzea.
- Gaitasun unitateak garatzea:
 - a) Ikaskuntza eta prestakuntza prozesua bera nola kudeatu.
 - b) Kooperazioa eta talde lana.
 - c) Ekimena, jarrera ekintzailea eta sormena garatzea.

Gaitasun unitate hauek banakatu egingo dira kualifikazio maila ezberdinetarako eta Euskal Herriko Kualifikazio Sistemaren Lanbide Kualifikazio guztiei txertatuko zaie.

1.11 helburua: Euskal Herriko Kualifikazioen sistemari lotutako prestakuntzaren garapenean aurrera egitea.

Helburu hau gauzatzeko aurreko helbururako ezarri ziren neurri berberak zehaztu ziren.

3. Esparru Estrategikoa: Euskal Herriko Lanbide Heziketan berrikuntza etengabeko hobekuntza prozesu modura bultzatzea.

Esparru honetan Institutuak garatutako edo garatzear dituen helburu estrategikoak honako hauek izan dira:

3.6 Helburua: Euskal Herriko lanbide kualifikazioen gaineko I+D+I.

Zehaztu ziren neurrien artean honako hauek daude:

- Kualifikazioen Euskal Institutuak I+D+I jarduera plana mamitu behar du, ereduzko enpresa multzo batean ekoizpen metodoen bilakaera aztertuz enpresetatik sortzen diren profesionaltasunaren konbinazio giltzarriak ezagutzera zuzendua egongo dena (egiteko berriak, teknika berriak...) lanbide kualifikazioen bilakaera eta eraldaketa lerroak aldeztu aurretik ezagutzeko bide emango dutenak.



- KEIren laguntzarekin Behatokiak I+D+I jarduera plana mamitzea, lan merkatuan eskatzen den profesionaltasunaren edukiko aldaketak ezagutzera zuzendua.

Aztertutako aldian helburu hauei dagokienez gauzatu diren ekintzak honako hauek izan dira:

- Hilero, kualifikazioen katalogoa osatzen duten familia ezberdinetarako, kualifikazioen egoeraren laburpen-taula moduan txostena egiten da.
- KEI giza eta gauzazko baliabideekin indartzeari dagokionez, Institutuko zuzendariak eskuratutako informazioari jarraiki, Institutuaren beraren langile kopuruari eutsi egin zaio aztergai izan dugun aldian zehar. Kualifikazioen konturako eta prestakuntza zikloen curriculo diseinurako irakasle liberatuen erabilera aldatuz joan da beharritan arabera; honela, bada, lau irakasle liberaturekin hasi ziren 2004-2005 ikasturtean eta zortziko taldea osatu zuten 2007-2008 ikasturtean liberatutako eta lanaldi erdiko irakasleekin.
- Euskal Herriko Kualifikazioen Katalogoaren garapenean aurrera egiteko helburuari dagokionez, KEIk lehenengo neurrian soilik izan du presentzia: Kualifikazioak zehazten diren sektoreetan garatzea. Lanak INCUALekin koordinazioan (Kualifikazioen Institutu Nazionala) Lanbide Kualifikazioen definizioa bi familiatan gidatzera mugatu dira: Fabrikazio Mekanikoa eta Mantenimendua, eta INCUALekin gainerako familia eta kualifikazioetan kolaboratzea. Eskumen unitateak mamitzeko neurriari dagokionez, guztiak URRATSBAT, EJE eta GUNEKA proiektuetatik artatu ziren, TKNIKAtik gidatu direnak.
- Euskal Herriko Kualifikazioei buruzko I+D+I helburuari dagokionez, lanbide kualifikazioei buruzko oinarritzko araudiak (5/2002 Legea eta ondoko garapena) estatu mailako esparrua bereizi zuen horiek definitzeko eta Autonomia Erkidegoetatik berezko kualifikazioak sortzeko aukera saihestu zuen; honela, bada, Estatu osorako kualifikazioen katalogo bakarra zehaztu zuen. Legezko esparru hau aintzat hartuta, KEIk “analisi-testuingurura ekartze” izeneko prozesua gauzatu du, Lanbide Kualifikazioei loturik EAEn egiten diren prestakuntza eskaintzak testuingurura ekartzeko argibideak eskuratzera zuzendua. Berebat, atal honetan ageri diren jarduerak Lan eta Hezkuntza Sailen artean hitzarmen edo lankidetzak akordio baten esparruan gauzatzeko planifikatu ziren, izan ere, bi sail hauen baitako ziren bi erakunderen elkarlana (KEI eta Behatokia) eskatzen baitzuten. Ordea, dena delako akordio edo hitzarmena ez zen gauzatu. Egoera hau gogoan hartuta, KEIk hainbat txosten sektorial gauzatu ditu, sektorearen edo Lanbide Familiei lotutako sektoreen gaineko datu estatistikoak eta bestelako informazioak jasotzen dituztenak.



Honela, bada, Lanbide Heziketako Zuzendaritzak 2004-2007 aldian zehar zuzenki Planarekin lotutako jardueretan egindako gastuak honako hauek izan dira:

	Mila euro
	Obligazioak
2004 urtea	
Gaitasunaren Gailuaren ezarpenean aholkulariak eta ebaluatzaileak trebatzea	14
Erreferente okupazionalak mamitu eta Moduluen Katalogoa egitea	79
2005 urtea	
Kualifikazio sistemen hedapena	110
Moduluen araberako katalogoa mamitu eta itzultzea	105
2006 urtea	
Lanbide Kualifikazioak mamitu eta itzultzea	7
Moduluen araberako katalogoa mamitu eta itzultzea	88
2007 urtea	
Lanbide familien azterketa sektoriala	66
GUZTIRA	469

Hona hemen Planaren indarraldean zehar, Planean ezarritako helburuei zuzenean egotz ezin dakizkiekeen KEIk gauzatutako gastuak zein izan diren:

	Aurrekontua	Obligazioak	Mila euro % Exekuzioa
2004 urtea			
Funtzionamendu gastuak	123	151	%122,76
2005 urtea			
Funtzionamendu gastuak	77	75	%97,40
Inbertsioak	0	9	%0
2006 urtea			
Funtzionamendu gastuak	89	66	%74,16
2007 urtea			
Funtzionamendu gastuak	199	136	%68,34
GUZTIRA	488	437	%89,55

Gastuen agiri euskarriaren gainean egindako azterketatik, honako hauek zatikatu direla ikusi dugu:

- Lanbide familiak ezaugarritzeko Txostenak egiteko gastuak, 91 mila eurokoak.
- Hainbat prestakuntza modulu euskarara egokitzeko 88 mila euroko gastuak.
- Txosten sektorialetarako egindako 38 mila euroko gastuak.

Gogoan hartu behar da KEIren finantza autonomia aztertutako aldian 3 mila eurokoa izan dela eta honenbestez, kopuru horrezaz gaindiko gastuen kontratazioa Lanbide Heziketako Zuzendaritzatik egiten dela.



V.10 LANBIDE HEZIKETA ETA ETENGABEKO IKASKUNTZARAKO BERRIKUNTZA ZENTROA (TKNIKA)

Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa (TKNIKA) 39/2005 dekretu bitartez sortu zen eta honako helburu hau du:

- LHren esparruan berrikuntza ekartzea
- Enpresa, teknologia zentro eta unibertsitateko ikerketa sailekiko harremanak sustatzea.
- LHko irakasleria prestatzea.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesu ezberdinak hobetuko dituzten inguru berrietan aurrera egitea.

TKNIKA, bai organikoki, bai funtzionalki, Prestakuntza eta Etengabeko Irakaskuntzaren baitako da.

Zentroaren egitekoa berrikuntza LHren ardatz eta hezurdura bihurtzea da eta nazioarte mailan bikaintasun tokian kokatzea, zentro integratuek enpresa, zentro teknologiko eta unibertsitateko ikerketa sailekin dituzten harremanak indartuz eta dinamika mugikor eta irekia sortuz.

Honela, bada, LHn teknologia berriak sustatzeko sortua izan zenez gero, zentroak lau gune nagusitan garatuko du jarduera:

1. e-learning berrikuntza gunea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak dinamizatzen.
2. Berrikuntza Teknologikoaren gunea. Komunikazio sistemen azpi-areak eta Urratsbat (Enpresa Proiektuen garapenerako programa) barne hartuta.
3. Kudeaketan Berrikuntza gunea.
4. Prestakuntza gunea.

Hona hemen horretarako hautatu diren estrategiak:

- Euskal Herriko lanbide prestakuntzan teknologia berrikuntzako prozesuak bultzatzea, LH lehiakorragoa eta dinamikoagoa izan dadin.
- Euskal Herriko Lanbide Heziketako Zentroekin lankidetzan aritu informazioaren eta teknologia berrien gizartearen garapenean, mundu zabalarekin konexio loturak sortu, herrialde aurreratuenengandik ikasi eta ikaskuntza kooperatiboko harremanak finkatzeko.
- Euskal Herriko Lanbide Heziketako Zentro Integratuen kudeaketan berrikuntza prozesuak bultzatu, egitura malguagoak, dinamikoagoak eta parte-hartzaileagoak sortzeko, lankidetzan, pertsonenganako konfiantza, autonomia eta taldeak kudeatzeko gaitasuna oinarri izango dituztenak.
- e-learning prestakuntza ikastaroak garatzea.
- Lanbide heziketa birtualeko inguruak sustatzea.



- LHko ikastetxeetako enpresak sortzeko proiektuak koordinatzea eta eraginpeko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.
- Teknologi berrikuntzan prestakuntza eskaini eta ematea eta LHko europar ikastetxeetako irakasleriari teknologia berrietan aholku ematea.
- Nazio eta nazioarte mailan garrantzizko proiektuei ekitea.

Lanbide Heziketarako Euskal Plana (2004-2007)

Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordearekin izandako elkarrizketei jarraiki eta aipatutako Planean aurreikusten diren helburu kopuru adierazgarria aintzat hartuta, TKNIKAk horiek betearazteko erantzukizun zuzena zuen haien berri eman ziguten.

Hona hemen 2004-2007 aldian markatutako helburua eta horien lorpena:

1. Esparru Estrategikoa. Kualifikazio eta Lanbide Heziketako Sistema Bateratua gaurkotu eta hobetzea.

1.5 helburua: lanbide heziketako irakasleriaren kualifikazio eta etengabeko prestakuntza emateko sistema integrala finkatzea.

1.12 helburua: egungo beharrianetara egokituko den lanbide prestakuntza berariazkoa finkatzea.

Helburu hauek gauzatu ahal izateko honako ekintza hauek gauzatu ziren:

- Irakasleria prestatu TKNIKA eta Incess erremintaren bitartez.
- TKNIKAN urrutiko hezkuntzarako ikasmateriala diseinatu eta mamitu da (e-learning): 12 e-learning ikastaro fabrikazio mekanikoaren familiakoak; 4, administrazioaren familiakoak; 3, elektrizitate elektronikoaren familiakoak; 1, merkataritza familiakoak, 1, automozioaren familiakoa; 1, ehungintzaren familiakoa, 1, informatikako segurtasunari buruzkoa, eta 6, fabrikazio mekanikoaren familiakoak, euskaraz.

3. Esparru Estrategikoa: Euskal Herriko Lanbide Heziketan berrikuntza etengabeko hobekuntza prozesu modura bultzatzea.

3.1 helburua: lanbide heziketako ikastetxeen kudeaketa berritzea.

3.3 helburua: ikastetxe eta enpresen transferentzia teknologikoa eta ezagutzarena berritzea.

3.4 helburua: LHko ikastetxeen sarean ezagutza kudeatzeko sistema ezartzea.

3.8 helburua: Lanbide Heziketaren esparruan erabilgarri izan daitezkeen ikerketa proiektuak garatzea.

3.9 helburua: Lanbide heziketako ikastetxeak zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal sarearen barruan, ikerketa, garapen eta teknologia berrikuntzako erakunde modura pixkanaka egiaztatzea lortzea.

3.10 helburua: Lanbide heziketaren esparruan ikerketa, garapen eta berrikuntza zentroa sortzea.

3.11 helburua: eremu berritzaileetan ikaskuntza molde berriak sustatzea.



Helburu hauek gauzatu ahal izateko honako ekintza hauek gauzatu ziren:

- Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa sortzea (TKNIKA).
- Hainbat egitasmoren garapena, hala nola:
 - Guneka sareak: ikastetxeak kudeatzeko eredua da, minienpresen kudeaketa eredua ezartzea helburu duena, ikastetxeak bezero geruza bakoitzari zuzendutako kudeaketa unitateetan egituraturaz.
 - Ardatz egitasmoa: hezkuntza-ikastetxe bateko pertsonen gaitasunak kudeatzen dituen programa.
 - Urratsbat programa: LHko ikasleen artean ekimen jarduerak sustatzea du helburu, ikastetxeak enpresa haztegi bihurtuz, eta pertsona sustatzaile eta ikasleriari ikastetxeetako instalakuntzak eta ekipamendua erabiltzea bideratuz.
- TKNIKAtik dinamizatutako egitasmo teknologikoak, prestakuntza ekintza ezberdinak besarkatzen dituena.
- Ikastetxeetan IKTak garatzeko Premia Plana II.
- IKTak lanbide heziketako didaktikan dituzten aplikazioei buruzko prestakuntza programa berariazko bat ematea irakasleariari. KAIOA proiektua.
- Profit Proiektua: Industria Ministerioaren ikerketa teknikoa sustatzeko programa da, enpresak eta bestelako erakundeak ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerak gauzatzera bultzatzeko laguntza teknikoak deitzen dituena, 2004-2007 ikerketa zientifiko, garapen eta berrikuntza teknologikoko ikerketa plan nazionalen finkatutako helburuen arabera, ikerketa teknikoa sustatzera emandako atalean.
- Lanen espermentazioa errealitate birtualean.

4. esparru estrategikoa: Euskal Herriko Lanbide Heziketan teknologia berriak.

Esparru honetako 12 Helburu Estrategikoei TKNIKAtik ekin zaie, hau da:

- 4.1 helburua: teknologia berrien ezagutza eta erabileran prestakuntza, gaurkotze eta egiaztatze bide arautua ezartzea.
- 4.2 helburua: ikastetxeen ekipamendura eta bideokonferentziak egiteko euskarri eta unitateak sortzera emandako programa eraikitzea.
- 4.3 helburua: beharrikako diren baliabideak erabiltzea modu egokian planifikatuz sisteman ahalegin-bikoiztasunik gerta ez dadin.
- 4.4 helburua: ikastetxe eta gela ezberdinen artean lankidetzeta eta elkarlana sustatzea.
- 4.5 helburua: jarraibide modura erabiltzen den materiala enpresen egungo erabileretara egokitua egotea lortzea; berebat, sortze bidean diren sistemak identifikatzea.
- 4.6 helburua: ahal den neurrian jabetzako softwarea open sourceko softwarearekin ordezkatzeta, kostuak urritu eta sistema osoaren hazkuntza ziurtatzearen.
- 4.7 helburua: softwarea mantentzeko berezko gaitasuna izatea.
- 4.8 helburua: estandar irekiak ezartzea.



4.9 helburua: egiaztatutako “outsourcing” taldea finkatzea.

4.10 helburua: lanbide heziketako zentrozen informazio, erabakitzeko gaitasun eta orokorrean, administrazio jarduerako prozesuak nabarmen hobetzea.

4.11 helburua: irakasleen artean PDAen erabilera sustatu, berebiziko arreta eskainiz horren aplikazioan prestakuntza eta irakaskuntza prozesuei eta kalitate prozesuen euren berezko eskakizunei.

4.12 helburua: prestakuntza prozesuek “on line” laguntza pertsonalizatua izatea lortzea.

Helburu hauek gauzatu ahal izateko honako ekintza hauek gauzatu ziren:

- KAIOA proiektua, IKTbak erabiltzen ikasteko irakasleria prestatzeko. Helburua Lanbide Heziketako zentzoei laguntza ataria baliatzea da, software librea oinarri duena, LHko zentrozen negozio-logika barne hartu eta LH eta bere erakundearen arteko jardungarritasuna prozesu osoen multzoarekin euskarrituko duena, ikastetxeak erakundearen barruan teknologia hauek erabiltzera bultzatuz eta sentikortuz.
- Premisa II Plana.
- Sailak langileak kontratatzea enpresa, ikerketa zentro eta unibertsitateekiko lankidetzan dinamizatu eta bideratzeko.
- Tutoreak prestatzea e-learning ikastaroetan.

Ia egintza guztiak errepikatu egiten dira helburu ezberdinetan, izan ere, orokorregiak baitira eta honenbestez, egintza edo proiektu berarekin gauza baitaitezke. Bada, Guneka, Ardatz, Urratsbat eta KAIOA proiektuak behin eta berriz ageri dira egintza eta ebidentzia ugaritan.

Hona hemen Planaren indarraldean zehar, Planean ezarritako helburuei zuzenean egotz ezin dakizkiekeen TNIKAK gauzatutako gastuak zein izan diren:

	Mila euro		
	Aurrekontua	Obligazioak	% Exekuzioa
2005 urtea			
Funtzionamendu gastuak	160	374	%233,75
Inbertsioak	487	235	%48,25
2006 urtea			
Funtzionamendu gastuak	779	939	%120,54
Inbertsioak	1.261	445	%35,29
2007 urtea			
Funtzionamendu gastuak	795	834	%104,91
Inbertsioak	1.298	583	%44,92
GUZTIRA	4.780	3.410	%71,34

Egindako azterketan zera azaleratu dugu:

- 2005, 2006 eta 2007ko ekitaldietan, hurrenez hurren 128, 111 eta 204 mila euroko gastuzatikapenak egin dira.



- Berebat, eta prozedura negoziatua eta 12.020 eurotik beherako hainbat ordainagiriren bitartez 182 mila euroko zenbatekoa zatikatu da, 2005eko ekitaldian sare informatikoen instalakuntza elektrikoa egiteko gauzatutako hainbat gasturi dagokiena.
- Aztertu ditugun kontratazio espedienteetatik honako huts hauek azaleratu ditugu.

Aztertu ditugun kontratazio espediente guztietan premiazko izapidea erabili da, horren erabilera egoki arrazoitu gabe.

Aztertutako espedienteetarik bitan Ekonomia Kontrolerako Bulegoaren aurkako bi txosten daude; horietan zera adierazten da:

- Prozedura negoziatua legeriak aurreikusten ez duen suposamendu batean erabili da.
- Esleipenerako ezarritako irizpideek ez dituzte pleguetan finkatutako arauak baliatu.
- Kasuetako batean esleipen hartzaile den enpresak ez ditu kontratatzeke betekizunak betetzen, izan ere, ez baitu egiaztatu APKLTBren 20. artikuluetako debekuetatik batean ere ez dagoela sartua.

V.11 LANBIDE HEZIKETAKO ZENTROAK

1998ko abenduaren 9ko Agindu bitartez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, Lanbide Heziketako zentro integralen sarea osatzen duten ikastetxeek garatu beharreko egitekoak arautu ziren, Lanbide Heziketako lehenengo Euskal Plangintzak aurreikusten dituenak.

Gobernu Kontseiluak 1997ko apirilaren 22ko saioan onetsitako Lanbide Heziketako lehenengo Euskal Plangintzak proposatzen duen sistema integratuaren oinarriko ezaugarri modura prestakuntzarako erakunde-eskaintzaren iragazkortasuna bideratuko duen LHko ikastetxe publiko eta pribatuen sarea osatzea azpimarratu du, langileen kualifikazio ahaleginak ahalik eta gehien sustatzearren eta LHko sistema integratuaren funtzionamendu egokia bermatzearren.

Berebat, Plangintza honetan, V. kapituluko “Lanbide Heziketako zentro integral motak” atalean jasotzen da LHko ikastetxe publiko eta pribatuen sare integrala Goi Mailako Lanbide Heziketako zentroek, Berrikuntza Teknologikoko zentroek eta Zentro tekniko bereziek osatuko dutela.

2001eko urtarrilaren 29ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarenak, Lanbide Heziketako Euskal Planak aurreikusten duen Lanbide Heziketako Ikastetxe Integralen sarea osatzen duten ikastetxeen zerrenda ematen du argitara; baita, aipatutako Plangintzan aurreikusitako ondorioetarako lanbide arloren batean hitzarmenak ezartzen dituzten ikastetxeena ere.

Azaroaren 23ko 223/2004 Dekretuaren bitartez, Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuaren figura sortu eta arautzen da.

Lanbide-heziketako Ikastetxe Integratua da lanbide-heziketako ikastetxe bat, publiko zein itunpekoa, Berriazko Lanbide Heziketa, Etengabeko Lanbide Heziketa, eta/edo Lanerako Lanbide Prestakuntza eskaini eta ematen dituen; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztutako baldintzak betetzen dituen; eta, pertsonen kualifikazio- edo gaikuntza-



beharrei, edota bere produkzio-inguruaren zein administrazioaren beharrei erantzuna ematearren, eredu propioa behar duena, kudeaketa, antolamendu, funtzionamendu eta finantzaketari dagokienez.

